Osakidetza



INFORMATIKAKO TEKNIKARI ESPEZIALISTA

GALDERAK

1. **Ondorengo ordenagailu pertsonalen artetik, zeinek lortu zuen arrakasta benetan nabarmena merkatuan?**

   a) Wozniak PCak.
   b) IBM PCak.
   c) Motorola 68K PCak.
   d) Zilog Z c80-ak.

2. **Zer material erabiltzen da mikroprozesadorea fabrikatzeko?**

   a) Aluminioa.
   b) Galenioa.
   c) Silizioa.
   d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

3. **Zer dira FPM eta BEDO?**

   a) RAM memoria motak.
   b) Mikroprozesadorerako zokalo motak.
   c) Memoria slotak.
   d) Disko gogor motak.

4. **Hautatu plaka nagusi modernoetan erabiltzen diren BIOS eta UEFI firmware sistemei buruzko baieztapen zuzena:**

   a) Plaka nagusiko txip batean txertatuta dauden firmware motak dira.
   b) PCa abiarazteaz eta sarrera/irteerako gailu jakin batzuk maneiatzeko euskarria emateaz arduratzen dira.
   c) Oinarrizko parametroak konfiguratzeko interfaze grafikoa eskaintzen dute.
   d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

5. **Ordenagailuko zein gailuk egiten du grafikoak pantailan irudikatzeko egin beharreko prozesamendua?**

   a) CPUak.
   b) GPUak.
   c) TFPUak.
   d) Aurrekoetako BAT ERE EZ da zuzena.



6. Zer ulertzen da pantailaren "bereizmen" gisa?

a) Pantailaren tamaina horizontalaren eta tamaina bertikalaren arteko erlazioa.
b) Pantailaren diagonalak dituen hazbete kopurua.
c) Monitoreak irudika ditzakeen puntu indibidualen (pixel) kopurua: puntu horizontalak bider puntu bertikalak.
d) Aurrekoetako BAT ERE EZ da zuzena.

7. Zer dira SATA, SAS eta PCIe?

a) Disko gogorren konektoreak.
b) Barne-biltegiratze interfazeak.
c) Disko gogorrentzako hedapen-zirrikituak.
d) Datuen busak.

8. Zein teknologiak egiten du beroarekin lagundutako grabazio magnetiko bat?

a) HAMR.
b) SMR.
c) PMR.
d) HGST.

9. Hurrengo hauetatik zein hartzen da memoria-txartel formatu gisa?

a) SDHC.
b) QFast.
c) XQD.
d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

10. Netbookek hauetatik zein osagai dituzte?

a) Windows 10 edo Chrome OS sistema eragileak.
b) Mikroprozesadore sinpleak, Atom, Celeron edo ARM motakoak, baina hobetuak eta gehienez 4 nukleokoak.
c) Gutxienez 11,6 hazbeteko pantailak, LED teknologiakoak eta, gutxienez, "HD Ready" bereizmenekoak.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

11. Zertaz arduratzen da ALU?

a) Kalkulu ugari egiteaz arduratzen da, hala nola zenbaki osoen gainean egindakoez edo eragiketa logikoez.
b) Zenbaki hamartarrekin eragiketak egiteaz arduratzen da, baita beste eragiketa batzuk ere, hala nola osoen zatiketak.
c) Mikroprozesadorearen atalak komunikatzen dituzten datuetarako bidea da.
d) Mikroprozesadoreak erabil dezakeen memoriaren tamaina maximoa horren menpekoa da.



12. Zer da memoria atzitzeko abiadura (ns)?

a) Modu fidagarrian jasan dezakeen busaren erloju-abiadura maximoa adierazten duen zenbakia da.
b) Memoria atzitzeko ziklo minimo bat egiteko behar den denbora minimoa da.
c) Memoria atzitzeko latentzia-, atzerapen- edo berantze-denbora da.
d) Segundo bakoitzeko transferitu litekeen memoria-kantitate maximoa da.

13. Zein dira gaur egun memoria slot mota ohikoenak?

a) FM2+ eta LGA.
b) DIMM eta SO-DIMM.
c) DDR2 eta DDR3.
d) DIMM eta DD2.

14. Zer da freskatze-maiztasuna pantailan?

a) Soilik GPUa erabiltzeko hartzen den memoria.
b) Irudika daitekeen kolore kopurua.
c) Pantaila zenbat aldiz marraztu daitekeen segundo bakoitzeko.
d) Aurrekoetako BAT ERE EZ da zuzena.

15. Baieztapen hauetatik, zein EZ da OLED/AMOLED pantailen abantaila?

a) Ikusangelu bikainak.
b) Kontsumo txikia.
c) Kostu handiko fabrikazioa.
d) Freskatze eta erantzuteko denbora handia.

16. Hauetako zeinekin inplementatu daiteke RAID motako sistema bat?

a) RAID softwarea.
b) RAID hardwarea.
c) RAID firmwarea.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

17. SSD disko gogorrei buruzko baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

a) SSD disko baten zarata-maila oso handia da.
b) SSD disko batek inpaktu eta bibrazioekiko erresistentzia handia du.
c) Ez da baldintza klimatologiko txarrekiko erresistentea.
d) Fragmentaziorik ez badago, biraketa-abiadura handiko disko gogorrak SSD disko gogorrak baino azkarragoak dira.



18. Baliabide hauetatik, zeinek erabiltzen du biltegiratze optikoaren teknologia?

a) MicroSD.
b) CD.
c) eSATA.
d) Disketea.

19. Lote-prozesamenduan (batch) oinarritutako sistema eragilea zein belaunaldikoa da?

a) 2. belaunaldikoa.
b) 3. belaunaldikoa.
c) 4. belaunaldikoa.
d) 5. belaunaldikoa.

20. Ondorengo sistema eragileetatik zein da multiuser eta multitask?

a) CTSS.
b) OS/360.
c) UNIX.
d) EXEC II.

21. Zein sistema eragile motatan erabiltzen da denbora partekatzea (time sharing) izeneko teknika?

a) Erabiltzaile bakarreko sistema eragileetan.
b) Denbora errealeko sistema eragileetan.
c) Multiprogramazioko sistema eragileetan.
d) Sistema eragile interaktiboetan.

22. Superordenagailu batean ataza bakarreko sistema eragile bat instalatzen bada…

a) Prozesu bat baino gehiago exekutatuko du aldi berean.
b) Prozesu bakarra exekutatuko du aldi berean.
c) Prozesua hari (threads) desberdinetan banatuko du.
d) Beste prozesuak hautatuko ditu lana banatzeko.

23. Ekipamendu informatikoak zein sistema motatan EZ ditu baliabideak partekatzen?

a) Sistema zentralizatuetan.
b) Sareko sistemetan.
c) Sistema banatuetan.
d) Aurrekoetako BAT ERE EZ da zuzena.



24. Zenbat mailatan zegoen banatuta THE (Technische Hogeschool Eindhoven) sistema eragilea?

a) 4 mailatan: 0tik 3ra.
b) 4 mailatan: 1etik 4ra.
c) 5 mailatan: 0tik 4ra.
d) 6 mailatan: 0tik 5era.

25. Zer dira erabiltzaile-prozesuak?

a) Sistema abiaraztean normalean exekutatzen diren prozesuak dira.
b) Sisteman sartzen den erabiltzaileak exekutatzeko agintzen dituen prozesuak dira.
c) Sistema eragileak bigarren planoan exekutatzen dituen prozesuak dira.
d) Erabiltzaile bakoitzak sistema eragileak behar bezala funtzionatzeko behar dituen prozesuak dira.

26. Nola exekutatzen dira prozesuak FIFO algoritmoan (first input first output)?

a) Prozesuak iriste-ordenaren arabera exekutatzen dira. Lehenen iristen dena exekutatzen hasten da.
b) PUZa exekutatzeko zain dauden prozesuetatik laburrena exekutatzen da.
c) Prozesu bakoitzaren lehentasun-ordenan exekutatzen da prozesua.
d) Algoritmo honek itxaroten dauden prozesu bakoitzari exekuzio-denbora ematen die.

27. Sistema eragilearen memoria nagusia partizioen bidez kudeatzeko teknika…

a) Memoria tamaina finkoko partizioetan edo tamaina aldakorreko partizioetan zatitzean datza.
b) Tamaina finkoan baino ezin dira zatitu.
c) Memorian guztiz kargatuta ez dauden programak exekutatzeko balio du.
d) Prozesu bakoitzari esleitutako memoria-eremua babesten du.

28. Zein fitxategi-sistema onartzen dituzte Linux banaketa gehienek?

a) NTFS.
b) FAT32.
c) EXT2,EXT3,EXT4.
d) HFS.

29. Zein da OSI ereduaren eta TCP/IP ereduaren arteko alde nagusia?

a) OSIk 4 geruza praktiko ditu; TCP/IPk 7 geruza teoriko ditu.
b) OSI erreferentziazko eredu teorikoa da eta 7 geruza ditu; TCP/IP inplementaziorako eredu praktikoa da eta 4 geruza ditu.
c) TCP/IPk 3 geruza fisiko baino ez ditu definitzen; OSIk 7 geruza logiko definitzen ditu.
d) OSI LANen bakarrik erabiltzen da; TCP/IP WANen.



30. Sareen erabileraren abantailak aztertuta, software eta datu baliabideak partekatzeak aldaketa nabarmena dakar kudeaketa administratiboan sistema isolatuen aldean. Ondorio hauetako zein da zentralizazio horren ondorio zuzen eta positibo bat LAN ingurune batean?

a) Ingurunearen erredundantzia dela eta, segurtasun-kopiak egiteko beharra erabat ezabatzea.
b) Partekatutako baliabideak modu zentralizatuan administratzeko gaitasuna. Horri esker, datuen integritatea sarbidea kontrolatzeko mekanismoen bidez mantendu daiteke, eta software-bertsioen koherentzia zerbitzaritik hedatutako eguneratzeen bidez ziurtatu.
c) Sareko trafikoaren hazkunde esponentziala, baliabidera sartzen den erabiltzaile-kopurua edozein dela ere.
d) Datu-fitxategiak eskuz erreplikatu behar dira lan-estazio bakoitzean haien erabilgarritasuna bermatzeko, eta horrek funsgabetasunak eta informazio-bikoiztasunak gertatzeko probabilitatea handitzen du.

31. Difusio bidezko transmisio-teknologia duen sare batean (broadcast), zer ezaugarri da definitzailea?

a) Lotura bakoitzak puntutik punturako bi nodo baino ez ditu konektatzen.
b) Gailu guztiek komunikazio-kanal bakar bat partekatzen dute.
c) Zirkuituen kommutazioa eskatzen du nahitaez.
d) Full-duplex moduko transmisioa onartzen du bakarrik.

32. Sareko zein topologia fisikok eskaintzen du akatsekin tolerantziarik handiena lotura indibidual batean?

a) Bus-topologiak.
b) Izar-topologiak.
c) Eraztun-topologiak.
d) Sare-topologiak.

33. Zein IEEE 802 estandarrek definitzen du berariaz Ethernet teknologia sare kableatuetarako?

a) IEEE 802.11.
b) IEEE 802.5.
c) IEEE 802.3.
d) IEEE 802.4.

34. Datu-transmisioan, zer lotura dago banda-zabaleraren eta transmisio-abiaduraren artean?

a) Kontzeptu berdin-berdinak dira, eta erabat sinonimoak.
b) Transmisio-abiadurak banda-zabalera erabilgarria zehazten du.
c) Ez dute zuzeneko loturarik transmisio-bide digitaletan.
d) Banda-zabalerak transmisio-abiadura teoriko maximoa mugatzen du.



35. Zein transmisio-bidek eskaintzen du interferentzia elektromagnetikoekiko immunitate handiagoa eta distantzia handiagoak ahalbidetzen ditu errepikagailurik behar izan gabe?

a) UTP 6 kategoria pare bihurritua.
b) RG-6 kable ardazkidea.
c) Zuntz optiko monomodoa.
d) Haririk gabeko ingurunea 5 GHz-eko bandan.

36. TCP/IPko Internet mailako zein protokolo arduratzen da sare lokal batean IP helbideak MAC helbideetara ebazteaz?

a) ICMP (Internet Control Message Protocol).
b) UDP (User Datagram Protocol).
c) ARP (Address Resolution Protocol).
d) DNS (Domain Name System).

37. Zein da IPv6 helbide honen formarik konprimituena? 2001:db8:0:0:0:1:2:3

a) 2001:db8::1:2:3
b) 2001:db8:0::0:1:2:3
c) 2001:db8:0:0::1:2:3
d) 2001:db8:::1:2:3

38. Zer interkonexio-gailuk lan egiten du nagusiki maila fisikoan, eta seinalea bere ataka guztietan errepikatzen du, tramak iragazi gabe?

a) Switch (kommutagailua).
b) Router (bideratzailea).
c) Hub (kontzentragailua).
d) Bridge (zubia).

39. Demagun IPv4 192.168.10.0/26 helbidea. Ondoko baieztapenetatik, zein da zuzena azpisare horri dagokionez?

a) Hosts tartea 192.168.10.0tik 192.168.10.63ra doa.
b) Broadcast helbidea 192.168.10.63 da.
c) 64 azpisare sor daitezke maskara horretatik abiatuta.
d) Azpisare bakoitzak 128 hosts erabilgarri ditu.

40. Demagun IPv4 10.20.30.0/27 helbidea. Baieztapen hauen artean, zein da zuzena?

a) Azpisare bakoitzak 32 helbide oso eta 30 hosts erabilgarri ditu.
b) Lehenengo azpisarearen broadcast helbidea 10.20.30.32 da.
c) Bigarren azpisarea 10.20.30.33an hasten da.
d) Azpisare maskara 255.255.255.128 da.



41. Sareak interkonektatzeko router baten oinarrizko konfigurazioan, zer taula da funtsezkoa bideratze-erabakiak hartzeko?

a) ARP taula (Address Resolution Protocol).
b) MAC kommutazio-taula.
c) Bideratze taula (routing table).
d) TCP saio aktiboen taula.

42. Zein da arrazoi tekniko nagusia Zigbee bereziki egokia izan dadin banatutako gailu kopuru handia duten IoT hedapenetan?

a) Wi-Fi-rekin parekatu daitezkeen transmisio-abiadura handiak eskaintzen dituela.
b) Energia-kontsumo txikia, malla topologiak eta eskalagarritasun ona konbinatzen dituela.
c) Kable bidezko azpiegitura espezifikoak behar dituela.
d) Soilik multimedia komunikazioetarako diseinatuta dagoela.

43. Zer ezaugarri partekatzen dute IoT elementuen arteko hiru konexio-motek (M2M, M2P eta P2P)?

a) Bakarrik makina batetik abiarazi daitezke.
b) Bakarrik pertsona batengandik abiarazi daitezke.
c) Noranzko bakarrekoak dira.
d) Bi noranzkokoak dira, eta edozein elementuk has dezake komunikazioa.

44. Zer gertatzen da OSI ereduko geruza bateko elementu batek modu drastikoan eboluzionatzen duenean?

a) Gainerako geruza guztiak aldatu egin behar dira egokitzeko.
b) Beheko geruzek funtzionatzeari uzten diote.
c) Gainerako geruzek ez dute aldaketa ezagutu beharrik, ezta portaera aldatu beharrik ere.
d) Ereduaren egitura osoa aldatzen da.

45. Zein ezaugarri konbinaziok azaltzen du Bluetooth Low Energy (BLE) gero eta gehiago erabiltzea IoT aplikazioetan?

a) Puntutik punturako konexioa eta bideo eta audio transmisioa denbora errealean.
b) 5. bertsioan Broadcast eta Mesh gehitu izana, komunikazio-distantzia handiagoarekin batera.
c) Egituratutako kableatuaren erabilera eta azpiegitura fisiko dedikatuaren beharra.
d) WiFiak baino transferentzia-abiadura handiagoa eta sare metropolitarrekin bateragarritasun esklusiboa izatea.



46. Ibilgailu baten neumatikoetan instalatutako sentsore batek etengabe neurtzen du presioa, eta balio hori autoaren kontrol-panelera automatikoki transmititzen du gainbegiratzeko. Zein komunikazio mota adierazten du kasu honek?

a) P2P komunikazioa (pertsonatik pertsonara).
b) M2P komunikazioa (makinatik pertsonara).
c) M2M komunikazioa (makinatik makinara).
d) WAN komunikazioa (eremu zabaleko sarea).

47. Zein egoera EZ da P2P komunikazioaren adibide bat (pertsonatik pertsonara)?

a) Telemetria.
b) Sare sozialak.
c) Osasun zerbitzuak.
d) Call center-ak.

48. Zein da RFID etiketa aktiboen eta pasiboen arteko alderik garrantzitsuena?

a) Aktiboek irakurlea eta etiketa elkar "ikustea" eskatzen dute; pasiboek, berriz, EZ.
b) Aktiboek EZ dute elikadura-iturririk; pasiboek, berriz, BAI.
c) Desberdintasun nagusia energia-iturri bat erabiltzea da.
d) Pasiboek aktiboek baino irakurketa distantzia handiagoak ahalbidetzen dituzte.

49. Ethernet-en zein estandarrek ahalbidetzen du 10 Gbps-ko transmisioa full duplex eran bakarrik egitea, pare txirikordatua erabiliz (UTP) (Cat5e, 6 edo 7), 100 metroko distantzia maximoarekin?

a) 1000BaseSX.
b) 10GBaseT.
c) 10GBaseSR.
d) 100BaseTX.

50. Zein dira Internet of Everything (IoE) errealitate bihurtzea ahalbidetzen duten lau elementuak?

a) Gailuak, sareak, protokoloak eta zerbitzuak.
b) Objektuak, datuak, prozesuak eta pertsonak.
c) Sentsoreak, eragingailuak, hodeia eta aplikazioak.
d) Hardwarea, softwarea, konektibitatea eta segurtasuna.

51. Zein ezaugarri konbinaziok deskribatzen du LoRaWAN modu egokian?

a) 1 GHz-tik beherako maiztasunak erabiltzen ditu, 20 km-rainoko distantziak ahalbidetzen ditu eta energia-kontsumo txikira bideratuta dago.
b) 2,4 GHz-etik gorako maiztasunetan funtzionatzen du, Mbps-eko abiadura handiak eskaintzen ditu eta distantzia laburreko komunikazioetara bideratuta dago.
c) Hiriguneetan soilik funtzionatzen du, gehienez 2 km-ko eremua du eta energia-kontsumo handia du.



d) Jabetzako lizentzia bat behar du eta WiFi-arekin alderagarriak diren abiadurak eskaintzen ditu.

52. Aukera hauetako zein EZ dagokio NFC eta RFID teknologiek bete ohi duten behar bati?

a) Garraio publikoan txartelarekin aurrez ordaintzeko sistemak.
b) Sarbide-kontrola identifikazio-txartelen bidez.
c) Logistika eta garraioa.
d) Distantzia luzeko komunikazioetarako eremu zabaleko sareak.

53. Demagun lorategi baten zelaiaren ureztatze automatikoa, zein da IoT sistema baten funtzionamendu-fluxuaren sekuentzia zuzena?

a) Eragingailuak datuak aztertzen ditu → sentsoreak ekintza erabakitzen du → sistema zentralak agindua exekutatzen du.
b) Eragingailuak hezetasuna neurtzen du → sentsoreak ekintza exekutatzen du → sistema zentralak datuak biltegiratzen ditu.
c) Eguraldia iragartzeko sistemak eragingailua gaitzen du hezetasuna neur dezan.
d) Sentsoreak hezetasuna neurtzen du → datuak kontrol-sistema batera bidaltzen dira → eragingailua aktibatzen da beharrezkoa bada.

54. Zein dira softwarea garatzeko prozesuaren faseak?

a) Analisia, diseinua, kodetzea, integrazioa eta mantentze-lanak.
b) Analisia, diseinua, kodetzea, probak eta mantentze-lanak.
c) Analisia, kodetzea, integrazioa eta mantentze-lanak.
d) Diseinua, kodetzea, integrazioa, probak eta mantentze-lanak.

55. Zertan datza analisi-fasea softwarearen bizi-zikloan?

a) Fase honetan, sistemak funtzionatzeko beharrezkoak diren elementuak jasotzen dituen diseinu bat egiten da.
b) Fase honetan, etorkizuneko sistemaren erabiltzaileek dituzten beharrak aztertzen dira, behar horiek sistema horren funtzionamenduaren bidez ase behar baitira.
c) Fase hau ez da garapen-zikloaren parte, nahiz eta gainerako faseetan eragina izan.
d) Fase honek baliabideak optimizatzea ahalbidetzen du haren ekoizpenean zehar.

56. Zenbat dokumentutan deskribatzen dira softwarearen bizi-zikloaren fase bakoitzean egindako lanak?

a) 5 dokumentutan: softwarearen eskakizunak, softwarearen diseinua, iturburu-kodea, proben dokumentua eta aldaketen dokumentua.
b) 3 dokumentutan: softwarearen eskakizunak, softwarearen diseinua, aldaketen dokumentua.



c) 5 dokumentutan: softwarearen eskakizunak, softwarearen diseinua, iturburu-kodea, software-sistema eta aldaketen dokumentua.
d) 3 dokumentutan: softwarearen eskakizunak, proben dokumentua, aldaketen dokumentua.

57. Zertan datza softwarearen V bizitza-zikloa?

a) Deskribatu diren softwarearen produkzioaren faseen sekuentziazioan oinarritzen da.
b) Eredu teilakatuaren antzeko fase-sekuentzia batean oinarritzen da, baina garrantzi berezia ematen zaio garapenean aurrera egin ahala sistemaren atal desberdinen gainean pixkanaka ateratzen den ikuspegi hierarkizatuari.
c) Garapen linealean oinarritzen da, eta fase bakoitzak iraupen mugatua du.
d) Erabiltzailearen premietarako irtenbide partzial batzuk esperimentalki probatzeko aukera ematen duen sistema osagarri batean oinarritzen da.

58. Eredu teilakatuko bizi-zikloan, kodetze fasearen berrikuspena zeren gainean egiten da?

a) Analisi-dokumentua.
b) Diseinu-dokumentua.
c) Iturburu-kodea.
d) Ustiapen-sistema.

59. Zein elementu bereizgarri ditu espiral-ereduak beste bizitza-ziklo ereduekin alderatuta?

a) Bitarteko analisia.
b) Proba-analisia.
c) Arrisku-analisia.
d) Hasierako analisia.

60. Becken arabera, zein lau baliotan oinarritzen da Muturreko Programazioa (XP)?

a) Sinpletasuna, Komunikazioa, Atzeraelikadura eta Ausardia.
b) Plangintza, Komunikazioa, Analisia eta Ebaluazioa.
c) Azkartasuna, Analisia, Komunikazioa eta Atzeraelikadura.
d) Analisia, Kodifikazioa, Komunikazioa eta Atzeraelikadura.

61. Zein alderdi hartu behar ditu kontuan softwarearen Kalitatea bermatzeko planak?

a) Pertsona-taldeak antolatzea eta garapenaren zuzendaritza eta jarraipena egitea.
b) Jarraitu beharreko bizitza-zikloaren eredua, bere fase eta jarduera guztien xehetasunarekin.
c) Garapenean zehar egingo diren berrikuspenak eta auditoretzak, jarduerak eta dokumentuak zuzenak eta onargarriak direla bermatzeko.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.



62. Zertan datza aldaketen kontrola?

a) Konfigurazio-elementu bakoitzaren jarraikako bertsioak modu antolatuan biltegiratzean datza.
b) Softwarearen konfigurazio desberdinak elkarren artean bateragarriak diren elementuekin osatzen direla eta multzo koherentea osatzen dutela bermatzean datza.
c) Konfigurazioaren bertsio desberdinei dagozkien erregistro-fitxategiak (.log) modu antolatuan diseinatu eta biltegiratzean datza.
d) Aurrekoetako BAT ERE EZ da zuzena.

63. Zein EZ da softwarearen garapenerako arau estandarra?

a) DoD.
b) ESA.
c) ISO.
d) IDEE.

64. Softwarearen bizitza-zikloko prozesuei buruzko ISO 12207 [ISO, IEC, 2017] estandarraren arabera, honako hau ezartzen da:

a) Softwarearen mantentze-lana zera da, software-produktu bat aldatzea entregatua izan ondoren.
b) Mantentze-lanen prozesuaren helburua zera da, sistemak zerbitzu bat emateko duen gaitasuna kontserbatzea.
c) Mantentze-lanen fasearen helburua zera da, akatsen zuzenketari lotutako aldaketak egitea, softwarearen inguruneak eboluzionatzen duen heinean beharrezkoak diren egokitzapenak egitea, eta bezeroaren eskakizun aldakorrek eragindako hobekuntzen ondoriozko aldaketak egitea.
d) Softwarearen lau mantentze-lan mota daude: zuzentzailea, egokitzailea, perfektiboa eta prebentiboa.

65. Zertan datza mantentze-lan perfektiboa?

a) Mantentze-lan perfektiboak espezifikazioan egindako aldaketak barne hartzen ditu, normalean software-produktu baten eskakizunetan izandako aldaketen ondorioz.
b) Mantentze-lan perfektiboa softwarea aldatzean datza, haren propietateak hobetzeko.
c) Mantentze-lan perfektiboa programa bat aldatzean datza, inguruneko aldaketen ondorioz.
d) Mantentze-lan perfektiboa programen balizko akatsak lokalizatu eta ezabatzean datza.

66. Zein bi motatakoak izan daitezke mantentze-lan egokitzaileak aipatzen dituen ingurune-aldaketak?

a) Datuen ingurunea eta programazioaren ingurunea.
b) Prozesuen ingurunea eta sistema eragilearen ingurunea.
c) Hardware ingurunea eta software ingurunea.
d) Datuen ingurunea eta prozesuen ingurunea.



67. Softwarearen mantentze-lanen kostuari dagokionez, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

a) Mantentze-lana softwarearen bizi-zikloko faserik garestiena da.
b) Akats bat detektatzea eta zuzentzea merkeagoa da hasierako faseetan amaierako faseetan baino.
c) Mantentze-lanek garapenaren kostua halako bi (edo gehiago) izan dezakete.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

68. Softwarearen mantentze-lanei buruzko Lehmanen legeen arabera, aldaketaren jarraitutasunari buruzko legeak hau ezartzen du:

a) Programa bat idatzi bezain pronto, zaharkituta geratzen da.
b) Programa batean aldaketak egiterakoan, haren egitura gero eta konplexuagoa bihurtzen da.
c) Programa baten eboluzioa auto-erregulatutako prozesua da.
d) Programa baten bizitza-ziklo osoan zehar, programaren garapenaren lan-karga konstantea da.

69. Ondoko hauetatik zein dira softwarearen mantentze-lanetan erabiltzen diren metodoak?

a) Atzeranzko ingeniaritza.
b) Modernizazioa.
c) Berregituratzea.
d) Aurreko guztiak zuzenak dira.

70. ISO/IEC 12207 arauaren arabera, zein dira softwarearen bizi-zikloko prozesuak biltzen dituzten jarduera nagusiak?

a) Software-prozesuak, hardware-prozesuak eta lankidetza-prozesuak.
b) Lankidetza-prozesuak, antolamendu-prozesuak eta kudeaketa teknikoko prozesuak.
c) Akordio-prozesuak, proiektuaren antolaketa-prozesuak, kudeaketa teknikoko prozesuak eta prozesu teknikoak.
d) Aurrekoetako BAT ERE EZ da zuzena.

71. Zein da eskuratze-prozesuaren helburua?

a) Produktua edo zerbitzua eroslearen baldintzen arabera eskuratzea.
b) Erosleari adostutako baldintzak betetzen dituen produktu edo zerbitzu bat hornitzea.
c) Proiektuen azpiegitura eta zerbitzuak hornitzea.
d) a) eta b) zuzenak dira.



72. Zeregin hauetako zein dagokio ISO/IEC 14764 arauak proposatzen duen mantentze-lanen egituraren prozesuaren inplementazio-faseari?

a) Mantentze-lanen prozesuko jarduerak eta zereginak zuzentzeko planak eta prozedurak garatu, dokumentatu eta gauzatzea.
b) Erabiltzaileen arazoei eta aldaketa-eskaerei buruzko txostenak jasotzeko, biltegiratzeko eta kontrolatzeko prozedura definitzea, eta horiei atzeraelikadura ematea.
c) Konfigurazioa kudeatzeko prozesuarekin interfaze bat inplementatzea edo ezartzea, dagoen sistemaren aldaketak kudeatzeko.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

73. Zeregin hauetatik zein dago proiektuak planifikatzeko prozesuan?

a) Aukerak identifikatzeko marko analitiko eta egituratu bat eskaintzea.
b) Plan errealista eta eraginkorrak sortu eta koordinatzea.
c) Arriskuak etengabe monitorizatzea.
d) Sistemaren elementuak eta konfigurazioak kontrolatzea.

74. Zer jarduera arduratzen da software-sistema bere bizi-ziklo osoan jasateko beharrezko baliabideak lortzeaz?

a) Mantentze-lanen prestaketa.
b) Mantentze-lanen exekuzioa.
c) Euskarri logistikoa.
d) Mantentze-lanen emaitzen kudeaketa.

75. Noiz egiten da software baten migrazioa?

a) Softwarea bere bizitza erabilgarriaren amaierara iritsi denean.
b) Sistema ingurune berri batean (hardware, sistema eragilea, plataforma edo azpiegitura…) funtzionatzeko egokitu behar denean.
c) Softwarea erretiratu behar den ala ez erabakitzeko aztertu behar denean.
d) Aurrekoetako BAT ERE EZ da zuzena.

76. Windows 11n, Microsoft Edgeren zein ezaugarrik blokeatzen ditu gune maltzurrak?

a) InPrivate nabigazioa.
b) Microsoft Defender SmartScreen iragazkia.
c) Windows Defender Credential Guard.
d) Windows Defender firewall.



77. Windows 11rako eskala handiko migrazio-egoera batean, erabiltzaile-profila gorde nahi bada, zer tresna gomendatzen du Microsoftek?

a) Windows Configuration Designer, hornikuntzan zehar erabiltzaile-profilak esportatzeko eta inportatzeko.
b) User State Migration Tool (USMT), Windows Assessment and Deployment Kit tresnaren barnean dagoena.
c) Windows Deployment Services (WDS) profilak automatikoki transferitzeko abio-irudi pertsonalizatuak erabiliz.
d) Microsoft Deployment Toolkit (MDT), profilak migratzeko in-place eguneratze-ataza bat erabiliz.

78. Windows 11n, zer izen du erabiltzaileak pasahitz bakarra sartzen duen autentikazio-motak?

a) Autentifikazio gogorra.
b) SSO autentifikazioa.
c) Autentifikazio sinplea.
d) Autentifikazio biometrikoa.

79. Windows 11n, irudi-pasahitza honetan oinarritzen da:

a) PIN zenbakien sekuentzia bat.
b) Irudi baten gaineko keinuak (zirkuluak, lerroak, puntuak).
c) Aurpegiaren derrigorrezko errekonozimendua.
d) USB bidez konektatutako txartel adimenduna.

80. Windows 11n, WDSren zein ezaugarrik ahalbidetzen du aldi berean ekipamendu ugari instalatzea?

a) Difusio anitza.
b) PXE aktibatzea.
c) Arretarik gabeko instalazioa.
d) Hasierako irudiak.

81. Windows 11n, zein tresnak orokortzen du erreferentziazko instalazio bat, ekipoaren datu espezifikoak ezabatuz?

a) DISM.
b) Sysprep.
c) DiskPart.
d) BCDBoot.

82. Zer ahalbidetzen du Windows 11ko aplikazioen SideLoadingak?

a) Denda ofizialeko appak instalatzea.
b) Enpresa-kontuak sortzea.
c) Driverren eguneratzeak kudeatzea.



d) Ziurtagiririk gabeko proba-aplikazioak instalatzea.

83. Windows 11n, zein da Cortana-ren berrantolaketaren ondorio nagusia, Microsoft 365-eko produktibitate-zerbitzuetara bideratu ondoren?

a) Hainbat funtzio galtzen ditu, hala nola konektatutako gailuen kudeaketa eta musikaren erreprodukzioa.
b) Funtzionalitate domotikoak irabazten ditu.
c) Hizkuntzen itzulpena egiten du bakarrik.
d) Enterprise lizentzia behar da edozein erabileratarako.

84. Windows 11n, zein tresnak kudeatzen du kontrolagailuen biltegi zentrala?

a) Gailuen administratzaileak.
b) Kontrolagailuen biltegi zentralak.
c) DISM.
d) PnPUtil.

85. Windows 11n, zein komando-lerroko tresnak ematen du aukera, disko fisiko edo birtualetan partizioak eta bolumenak sortu, ezabatu eta administratzeko?

a) DiskPart.
b) Deployment Image Servicing and Management.
c) PnPUtil.
d) Netsh.

86. Windows 11n, zein teknologiak ematen du sare lokaletan edukia partekatzeko aukera banda-zabalera saturatu gabe?

a) BranchCache.
b) DirectAccess.
c) RemoteFX.
d) Wi-Fi Direct Printing.

87. Zein tresna-multzok ematen du Windows 11n zerbitzariak administratzeko aukera?

a) Microsoft Management Console (MMC).
b) Windows PowerShell.
c) RSAT administrazio-tresnak.
d) ServerScope.

88. Windows 11n, zein tresnak kontrolatzen du arauetan oinarritutako aplikazioen exekuzioa?

a) Windows Defender SmartScreen.
b) AppLocker.



c) Device Guard.
d) Credential Guard.

89. Windows Server 2022an, aukera hauetako zein EZ da Active Directory-ren FSMO rol bat?

a) Schema Master.
b) RID Master.
c) PDC Emulator Master.
d) Network Domain Controller.

90. Windows Server 2022 duen ingurune batean, zer adierazten du eremuak (scope) DHCP zerbitzari batean?

a) Zerbitzariak esleitu dezakeen IP helbide-tarte bat.
b) Helbideak emateko denbora.
c) Zerbitzaria konfiguratzeko aukerak.
d) Helbide-bazterketen zerrenda.

91. Windows Server 2022 duen ingurune batean, zer da erreserba bat DHCP zerbitzari batean?

a) Eremutik (scope) kanpo utzitako helbide-tarte bat.
b) Domeinuaren erabiltzaile batentzako aukera espezifikoen konfigurazio bat.
c) IP helbide espezifiko bat, gailu bati bere MACaren arabera etengabe esleitua.
d) Helbideak emateko luzatutako denbora.

92. Windows Server 2022 duen ingurune batean eta Active Directoryn oinarritutako domeinu batean, zein talde motak ematen du basoko edozein domeinutako kideak sartzeko eta baso bereko edozein domeinutan baimenak esleitzeko aukera?

a) Global Group (Talde Globala).
b) Local Domain Group (Domeinuko Tokiko Taldea).
c) Universal Group (Talde Unibertsala).
d) Local Group (Tokiko Taldea).

93. Windows Server 2022an, zein osagai arduratzen da bezero-ekipoaren eta domeinu-kontrolagailuaren artean kanal segurua (secure channel) mantentzeaz?

a) Kerberos zerbitzua.
b) Netlogon zerbitzua.
c) DNS zerbitzua.
d) Active Directory zerbitzua.



94. Windows Server 2022an, Active Directory domeinu batean, erabiltzaile bat "Pediatria" izeneko Antolakuntza Unitate (OU) batekoa da. Talde Direktiba (GPO) hauek daude:

- **Guneari lotutako GPO bat, pantailaren atzeko planoa urdinez konfiguratzen duena.**
- **Domeinuari lotutako GPO bat, pantailaren atzeko planoa berdez konfiguratzen duena.**
- **"Pediatria" OU-ri lotutako GPO bat, pantailaren atzeko planoa gorriz konfiguratzen duena.**

Ez dago herentzia blokeaturik ez eta "Enforced" aktibaturik GPO ezeinetan. Zein izango da erabiltzaileak jasoko duen pantailaren atzeko planoaren kolorea?

a) Erabiltzailea autentifikatzen duen domeinu-kontrolatzailearen araberakoa da.
b) Urdina.
c) Berdea.
d) Gorria.

95. Windows Server 2022an, zer funtzio du PDC Emulator rolak Active Directoryn?

a) Active Directoryren eskema administratzea.
b) Domeinuaren ordua denbora-zerbitzari batekin sinkronizatzea.
c) Identifikatzaile erlatiboak (RID) esleitzea.
d) Domeinuen arteko erreferentziak mantentzea.

96. Windows Server 2022an, Active Directoryn, zein da Katalogo Globalaren funtzio nagusia?

a) Domeinuko objektu guztien segurtasun-kopiak biltegiratzea.
b) Basoko objektu guztiei buruzko informazio partziala izatea, bilaketa azkarrak egiteko.
c) Domeinuen arteko konfiantza-harremanak kudeatzea.
d) Objektu guztiak domeinu-kontrolatzaileen artean erabat erreplikatzea.

97. Windows Server 2022ren segurtasun-ereduan, ondorengo baieztapenetatik zeinek deskribatzen du zuzen erabiltzaile baten sarbide-tokenaren eta baliabide baten DACLaren arteko erlazioa?

a) DACL erabiltzailearen sarbide-tokenaren barruan biltegiratzen da, eta saioa hasten den unean sortzen da.
b) Sarbide-tokenak erabiltzailearen SIDak eta bere taldeak ditu, eta DACLan daudenekin alderatzen dira baliabide batera sartu nahi denean.
c) Sarbide-tokena autentifikaziorako baino ez da erabiltzen, eta DACLak, berriz, auditorian baino ez du esku hartzen.
d) DACLak zehazten du zein talde agertuko diren sarbide-tokenean saioaren hasieran.



98. Windows Server 2022 domeinu batean, administratzaile batek .admx eta .adml fitxategi berriak kopiatzen ditu taldeko direktiben biltegi nagusira (Central Store). Ondorengo baieztapenetatik, zeinek deskribatzen du zuzen fitxategi horien funtzioa eta beraien arteko aldea?

a) .admx fitxategiek hizkuntza-konfigurazioa dute, eta .adml fitxategiek sistemari aplika dakizkiokeen politikak definitzen dituzte.
b) .admx fitxategiek administrazio-txantiloien egitura eta konfigurazioa definitzen dute; .adml fitxategiek, berriz, hizkuntza-baliabide espezifikoak dituzte.
c) Bi fitxategiak berdin-berdinak dira, baina bat ekipoetarako erabiltzen da, eta bestea erabiltzaileentzako.
d) .adml fitxategiak domeinua 2022 funtzio-mailan dagoenean bakarrik erabiltzen dira.

99. Windows Server 2022ko domeinu batean, aurrez zehaztutako GPOak daude: Default Domain Policy eta Default Domain Controllers Policy.
Baieztapen hauetako zeinek deskribatzen du modu egokian haien arteko alde nagusia?

a) Default Domain Policy domeinu-kontrolatzaileei soilik aplikatzen zaie, eta Default Domain Controllers Policy, berriz, domeinuko erabiltzaile eta ekipo guztiei.
b) Default Domain Controllers Policy gune mailan aplikatzen da, eta Default Domain Policy, berriz, OU espezifikoei bakarrik aplikatzen zaie.
c) Default Domain Policy domeinuko objektu guztiei aplikatzen zaie, eta, oro har, pasahitz-direktibak eta kontu-blokeoa konfiguratzen ditu; Default Domain Controllers Policy, berriz, domeinu-kontrolatzaileei bakarrik aplikatzen zaie, eta auditoretza-direktibak eta saio-hasierakoak konfiguratu ohi ditu.
d) Bi politikak berdin-berdinak dira, eta modu erredundantean aplikatzen zaizkie domeinuko objektu guztiei.

100. Windows Server 2022an, RAID konfiguratzean, RAID 5en zein ezaugarri nagusik bermatzen du akatsekiko tolerantzia?

a) Datu guztiak beste disko batean bikoizten ditu, eta gehienez ere bi diskoren akatsak onartzen ditu.
b) 2 disko baino ez ditu behar, eta irakurketaren pareko idazketa-errendimendua mantentzen du.
c) Gaitasuna handitzen du akatsekiko tolerantziarik gabe, RAID 0rekin gertatzen den bezala.
d) Diskoen artean datuak eta paritatea banatzen ditu, eta, horri esker, sistemak martxan jarrai dezake disko batek huts egin arren ere.



101. Erakunde batean, administratzaileak Enpresarentzako OneDrive-n gordetako dokumentuetarako sarbide-baimenak kudeatzen ditu. Langile batek fitxategi bat partekatu nahi du lankide batzuekin, baina enpresaren gainerakoentzat eskuraezin gorde. Deskribatutako funtzionamenduaren arabera, ondorengo baieztapenetatik zeinek islatzen du zuzenki baimen horiek nola kudeatzen diren?

a) Fitxategi bat Enpresarentzako OneDrive-ra igotakoan, erakundeko kide guztiek automatikoki irakurtzeko sarbidea izango dute, banakako murrizketak ezartzeko aukerarik gabe.
b) Sistemak ez du fitxategiak era selektiboan partekatzen uzten; liburutegi osoak bakarrik parteka daitezke erakunde osoarekin.
c) Erabiltzaileek beren fitxategi profesionalak gorde ditzakete eta kolaboratzaileekin partekatu ala ez erabaki dezakete; baina liburutegiko edukiaren gaineko eskubideak eta baimenak SharePoint guneko administratzaileak kudeatzen ditu.
d) Erabiltzaileek beren fitxategi profesionalak gorde ditzakete, baina bai beste kolaboratzaile batzuekin partekatzeko erabakia, bai liburutegiko edukiaren gaineko eskubideak eta baimenak, SharePoint guneko administratzaileak kudeatzen ditu.

102. Enpresentzako OneDrive-n karpeta bat irekitzean, karpeta horretan sartzeko bide-izena leihoaren goiko aldean adieraziko da bisualki eta karpetaren hierarkia osoa erakutsiko du, esaterako: Nire fitxategiak > Dokumentuak > ENI. Nola deitzen zaio nabigazio-bidea adierazteko modu horri?

a) Nabigazio-haria.
b) Ariadnaren haria.
c) Direktorio-zuhaitza.
d) Sarbide azkarreko bidea.

103. OneDrive-n "Antolatu" zerrendaren bidez erabilgarri dauden ordenatze-irizpide guztien artean, horietako batzuk Enpresetarako bertsioan bakarrik daude eskuragarri. Zein dira irizpide esklusibo horiek?

a) Tamainaren eta fitxategi-motaren arabera ordenatzea.
b) "Nork aldatua" eta aldatze-dataren arabera ordenatzea.
c) Egile-izenaren arabera eta fitxategi-motaren arabera ordenatzea.
d) Fitxategi-tamainaren eta aldatze-dataren arabera ordenatzea.

104. Enpresa bateko IT arduradun bat ebaluatzen ari da ea langileek OneDrive-ko "Biltegi pertsonala" erabil ote dezaketen dokumentazio korporatibo sentikorra gordetzeko. Zein harpidetza-planetan dago erabilgarri funtzionalitate hori?

a) Microsoft 365 Familia eta Pertsonala planetan, ez Enpresetarako OneDrive-n, ez eta enpresa handientzako edo hezkuntzako harpidetzetan ere.
b) Microsoft 365-eko plan guztietan, Enpresetarako OneDrive eta hezkuntza-planak barne.
c) Microsoft 365 Enpresa Oinarrizkoa eta Enpresa Estandarra planetan, baina ez plan pertsonaletan edo familiakoetan.
d) Microsoft 365 Enpresa planetan, soilik baldin eta Microsoft 365 tenant-aren administratzaileak berariaz gaitzen badu administrazio-zentro korporatibotik.



105. OneDrive erabiltzaile batek fitxategi baterako sarbidea eman nahi dio Microsoft konturik ez duen pertsona bati. Posible al da hori?

a) Ez da posible, izan ere, OneDrive-k eskatzen du hartzaile guztiek Microsoft kontu aktibo bat izatea partekatutako edozein fitxategietara sartu ahal izateko.
b) Ezin da zuzenean egin, OneDrive-k Microsoft 365en tenant edo maizter berari dagozkien erabiltzaileen arteko erabilera partekatua bakarrik onartzen baitu.
c) Bai, posible da, baina hartzaileak derrigorrez Microsoft kontu bat sortu beharko du partekatutako fitxategia ikusi ahal izateko.
d) Bai, posible da, betiere administratzaileak kanpoko erabiltzaileekin partekatzea baimendu badu; horiek gonbidatu anonimo gisa jasoko dute sarbidea posta elektronikoko esteka baten bidez.

106. Enpresa batek SharePoint gune bat sortu behar du sartzen diren datu-bolumen handiak kudeatzeko, fitxategi horiek kokapen zehatzetara automatikoki bideratuko dituzten arauak konfiguratzeko eta sistemara gehitu ondoren datuen gainean egiten diren aldaketak kudeatzeko. Zer SharePoint gune motak betetzen ditu premia horiek?

a) Dokumentu-zentro batek, enpresako dokumentuen kudeaketa zentralizaturako diseinatuta dagoelako eta bideratze-arauak konfiguratzen uzten dituelako, fitxategiak dagokien kokapenetara bideratzeko helburuarekin.
b) Datu-zentro batek, horrek aukera ematen duelako datuak kudeatzeko bereziki diseinatu den gune bat sortzeko, sartzen diren fitxategiak kokapen zehatzetara bidaltzeko bideratze-taulak konfiguratzeko eta datuak erreferentzia-sistemara gehitu ondoren ezabatzeko edo aldatzeko.
c) Proiektu-gune batek, proiektuaren egoera eta artefaktu guztiak ingurune bakar batean biltzen dituelako, sartzen diren datuak modu automatizatuan kudeatzeko eta birbideratzeko tresnak barne.
d) Oinarrizko ikerketa-zentro batek, datuak bilatzeko eta sailkatzeko funtzio aurreratuak eskaintzen dituelako, eta, gainera, fitxategiak zehaztutako kokapenetara automatikoki zuzentzeko arauak konfiguratzeko aukera ematen duelako.

107. Talde bateko hainbat kidek SharePoint dokumentu-liburutegi batean biltegiratutako fitxategi bera aldatu behar dute. Zer da egokiagoa hainbat erabiltzailek fitxategi berean aldi berean aldaketak egitea saihesteko?

a) Fitxategia gordailutik erauzi (Check-out) ireki aurretik; horrela, beste inork ezingo du aldatu erauzita dagoen bitartean. Aldaketak gorde ondoren, fitxategia berriz sartu (Check-in) beharko da, guztiek aldaketak ikus ditzaten.
b) Fitxategia zuzenean liburutegitik ireki eta edizio esklusiboko modua aktibatu dokumentuaren aukeren bidez; horrek automatikoki blokeatuko du gainerako erabiltzaileak fitxategian sartzea irekita dagoen bitartean.
c) Fitxategiaren kopia lokal bat sortu, behar diren aldaketak egin eta bertsio berria liburutegira igo, aurrekoa gainidatziz, gainerako erabiltzaileak bertsio eguneratura sar daitezen.
d) Fitxategia, taldeko kide batek editatzen duen bitartean, soilik irakurtzeko baimenekin partekatu gainerako erabiltzaileentzat, eta edizio-baimenak berrezarri aldaketak amaitu ondoren.



108. SharePoint erabiltzaile batek jakinarazpen-sistema bat konfiguratu nahi du dokumentu-liburutegiko fitxategi baterako. Zer jakinarazpen-aukera ditu erabilgarri?

a) Bere Microsoft 365 kontuari lotutako posta elektroniko korporatiboaren bidez soilik jaso ditzake jakinarazpenak.
b) Jakinarazpenak SharePoint gunean bertan agertzen den laster-leiho baten bidez edo Microsoft 365 aplikazio mugikorreko push jakinarazpen baten bidez jaso ditzake.
c) Liburutegi osoan egindako aldaketa guztien asteko laburpen bat konfigura dezake, jakinarazpenak fitxategi espezifiko baten bidez iragazteko aukerarik gabe.
d) Posta elektroniko edo SMS bidezko abisu bat jaso dezake fitxategi horretan aldaketaren bat egiten den bakoitzean, haren gaineko alerta bat sortu ondoren.

109. Erabiltzaile bat proiektu baten atazak kudeatzen ari da SharePoint-en, eta ataza batzuk denbora-eskalan desberdin adierazita daudela ohartu da. Zeren araberakoa da zeregin bakoitza adierazteko erabiltzen den forma geometrikoa?

a) Esleitutako erabiltzailearen araberakoa da: arduraduna esleitu zaien atazak zirkulu batekin adierazten dira, eta esleitu gabeko atazak laukizuzen batekin denbora-eskalan.
b) Sartutako daten araberakoa da: hasiera-data zein muga-eguna zehaztu badira, laukizuzen batekin adierazten da; eta bi daten arteko bat bakarrik sartu bada, erronbo batekin denbora-eskalan.
c) Atazari esleitutako lehentasunaren araberakoa da: lehentasun handiko atazak triangelu batekin adierazten dira, eta lehentasun txikikoak zirkulu batekin denbora-eskalan.
d) Atazaren egoeraren araberakoa da: amaitutako atazak erronbo batekin adierazten dira, eta egiteke daudenak zirkulu batekin denbora-eskalan.

110. Erabiltzaile batek Wiki-gune bat sortu berri du SharePoint-en, eta, bertara sartzean, orrialde lehenetsi bat automatikoki agertzen dela ikusi du. Nola deitzen zaio teknikoki orrialde horri eta zer ezaugarri ditu?

a) Home.aspx deritzo; gunera sartzean agertzen den lehen orrialdea da eta, gunea sortzean bertsio estandar bat proposatzen den arren, aldatu edo ezabatu egin daiteke eta horren ordez beste bat jarri.
b) Index.aspx deritzo; gunera sartzean agertzen den lehen orrialdea da eta, gunea sortzean bertsio estandar bat proposatzen den arren, aldatu edo ezabatu egin daiteke eta horren ordez beste bat jarri.
c) Index.aspx deritzo; automatikoki sortutako orrialdea da, eta guneko eduki guztien aurkibidea jasotzen du; aldatu egin daiteke, baina ez ezabatu.
d) Home.aspx deritzo; automatikoki sortutako orrialdea da, eta guneko eduki guztien aurkibidea jasotzen du; aldatu egin daiteke, baina ez ezabatu.



111. Microsoft Teams elkarlanerako plataforma bat da, eta hainbat tresna eta zerbitzu jartzen ditu erabiltzaileen eskura. Ondorengo aukeretatik zeinek deskribatzen ditu zuzen talde bateko kideek Teams-en egin ditzaketen atazak?

a) Berehalako mezularitzaren bidez hitz egin, posta elektroniko korporatiboa kudeatu, fitxategiak transferitu, dokumentuetan sartzeko baimenak administratu eta talde-bilerak planifikatu.
b) Taldearen informazioa eskuratu, fitxategiak transferitu, elkarrizketen historia kontsultatu, SharePoint guneak sortu eta taldearen Microsoft 365 harpidetzak administratu.
c) Berehalako mezularitzaren bidez hitz egin, taldearen informazioa eskuratu, fitxategi pertsonalak edo partekatuak transferitu, elkarrizketen historia kontsultatu, bilerak planifikatu eta partekatutako fitxategiak editatzen kolaboratu.
d) Berehalako mezularitzaren bidez hitz egin, fitxategiak transferitu, elkarrizketen historia kontsultatu, erabiltzaile-lizentziak kudeatu eta taldearen historia partekatuak koeditatu.

112. Microsoft Teams-eko talde baten jabeak taldearen konfiguraziotik zer alderdi kudeatu ditzakeen berrikusi nahi du. Ondorengo aukeretatik zeinek deskribatzen ditu zuzen konfigurazio horrek eskaintzen dituen aukerak?

a) Taldeari lotutako irudia aldatu, egutegi partekatua kudeatu, kideen baimenak administratu eta taldearen posta elektronikoko jakinarazpenak konfiguratu.
b) Kideen baimenak administratu, egutegi partekatua kudeatu, kanal pribatuak konfiguratu, taldearen bilera programatuak kudeatu eta emojiak, GIF animatuak eta pegatinak erabiltzea baimendu.
c) Taldeari lotutako irudia aldatu, egutegi partekatua kudeatu, kideen Microsoft 365 lizentziak administratu, aipamenak aktibatu edo desaktibatu eta taldearen fitxategiak biltegiratzea kudeatu.
d) Taldeari lotutako irudia aldatu, kideen baimenak administratu, talde- eta kanal-aipamenak aktibatu edo desaktibatu, eta emojiak, GIF animatuak eta pegatinak erabiltzea baimendu.

113. Microsoft Teams-ek hainbat muga ezartzen ditu talde baten barruko kanalen kudeaketan. Ondorengo baieztapenetatik zeinek deskribatzen ditu zuzen muga horiek?

a) Talde bakoitzeko 200 kanal gehitu daitezke gehienez, 30 eguneko epean berrezarri daitezkeen ezabatutako kanalak kontuan hartu gabe.
b) Talde bakoitzeko 200 kanal gehitu daitezke gehienez, 30 eguneko epean berrezarri daitezkeen ezabatutako kanalak barne.
c) Talde bakoitzeko 300 kanal gehitu daitezke gehienez, 60 eguneko epean berrezarri daitezkeen ezabatutako kanalak kontuan hartu gabe.
d) Talde bakoitzeko 300 kanal gehitu daitezke gehienez, 60 eguneko epean berrezarri daitezkeen ezabatutako kanalak barne.



114. ISO/IEC 17799 arauaren arabera, nola definitzen da Informazioaren Segurtasuna?

a) Sarea babesteko software-tresna multzo bat da.
b) Informazioaren konfidentzialtasuna, integritatea eta erabilgarritasuna babestea da.
c) Datuen kalitatea ziurtatzeko kanpoko auditoretza-prozesu bat da.
d) Hardwareari eragiten dioten kanpoko mehatxu guztiak ezabatzea da.

115. ISO 7498 arauaren arabera, nola definitzen da Segurtasun Informatikoa?

a) Sarbide fisikoaren kontrolean oinarritutako kudeaketa sistema bat da.
b) Administrazio publikoan arriskuen analisia egiteko metodologia bat da.
c) Erakunde batean ondasunen eta baliabideen zaurgarritasuna minimizatzen duten mekanismo multzo bat da.
d) Erabiltzailearen anonimotasuna bermatzeko teknika kriptografikoak erabiltzea da.

116. Segurtasun-helburuen barruan, zer barne hartzen du "Gizatasun" jarduera-planoak?

a) Hardware-soluzioen instalazioa, konfigurazioa eta eguneraketa.
b) Langileen eta zuzendarien sentsibilizazioa eta prestakuntza, baita langileen funtzioak eta betebeharrak definitzea ere.
c) Segurtasun-politikak, planak, arauak eta prozedurak definitzea eta ezartzea.
d) Indarreko legedia betetzea eta horretara egokitzea, hala nola, Datuak Babesteko Lege Organikoa (DBLO) eta Zigor Kodea.

117. Zer bermatzen du "Konfidentzialtasuna" zerbitzuak?

a) Mezu edo dokumentu baten sortzailearen identitatea legitimoa dela.
b) Mezu edo fitxategi bat sortu zenetik ez dela aldatu.
c) Sistema informatiko batean transmititu edo biltegiratutako mezu bakoitza bere hartzaile legitimoak bakarrik irakurri ahal izango duela.
d) Sistema nahikoa sendoa dela erasoen eta interferentzien aurrean.

118. Zein da "Ez arbuiatze" zerbitzuaren helburua?

a) Mezu jakin baten egiletza eta bidalketa frogatzeko froga-mekanismo bat ezartzea.
b) Erabiltzaileak eskaintzen diren hainbat ekipo eta zerbitzuetara sartzen direla kontrolatzea.
c) Sistemaren hainbat baliabide erabiltzen direla erregistratzea eta monitorizatzea.
d) Eduki digital bat egile-eskubideen titular bati dagokiola frogatzea.



119. Nola definitzen da “Sakoneko defentsa” printzipioa?

a) Sarearen perimetroa babesteko suebaki bakar bat erabiltzea da.
b) Erakundearen sistema informatikoaren barruan askotariko segurtasun-mailak diseinatzea eta ezartzea da.
c) Fabrikatzaileek argitaratutako adabakien eguneroko eguneraketa da.
d) Internet bidez transmititzen diren datu sentikor guztiak zifratzea da.

120. Kudeaketaren heldutasun-mailan, zer ezaugarri du 1. etapak?

a) Nazioarteko estandarretan (ISO 27001) oinarritutako kudeaketaren ziurtapena.
b) Segurtasun-neurri oinarrizkoak “sen onagatik” ezartzea.
c) Segurtasunaren kudeaketa globala politikak eta planak definituz egitea.
d) Lege-esparruko eskakizunetara eta bezeroen eskakizunetara egokitzea.

121. Teknikoki, zer da "kalteberatasun" bat?

a) Kalteren bat eragin dezakeen edozein gertaera, ustekabekoa edo nahita egindakoa.
b) Mehatxu bat baliabide baten gainean gauzatzeko probabilitatea.
c) Sistema informatikoko edozein ahultasun, zeinaren bidez mehatxuek aukera izan baitezakete kaltea eragiteko eta erakundean galerak sortzeko.
d) Segurtasun-intzidente batek eragingo lukeen kaltearen neurketa eta balorazioa.

122. Nola definitzen da "Segurtasun-intzidente" bat modu sinplifikatuan?

a) Prebentzio-neurrien faltaren ondoriozko inpaktu ekonomikoa.
b) Mehatxu bat gauzatzea.
c) Enpresaren sistema fisiko edo logikoetan ahultasun bat izatea.
d) Identifikatutako arrisku bat ezabatzeko edo murrizteko erabiltzen den bitarteko bat.

123. Zer da segurtasun-neurri "pasibo" bat?

a) Gertakaria izan aurretik arriskua ezerezteko erabiltzen dena.
b) Segurtasun-intzidente bat gertatzen denean inpaktua murrizteko erabiltzen den edozein neurri.
c) Eraso bat gauzatzen ari den bitartean detektatzeko prozedura bat.
d) Ekipoen jarduera-erregistroak monitorizatzeko teknika bat.

124. Segurtasun-kontzeptuen hierarkian, zein elementuk osatzen dute piramidearen oinarria eta balio dute egindako jarduerak jasota uzteko?

a) Segurtasun-prozedurek.
b) Kontingentzia-planek.
c) Erregistroek / Ebidentziek.



d) Segurtasun-politikek.

125. Zein printzipiok ezartzen du erabiltzaileek beren zereginetarako behar-beharrezkoak diren zerbitzuak eta aplikazioak soilik izan behar dituztela esleituta?

a) Konfigurazio sendo eta seguruaren printzipioa.
b) Sakoneko defentsa (Layered Security).
c) Gutxieneko pribilegioen esleipena.
d) Jabearen araberako sarbide-kontrol diskrezionala.

126. Nola definitzen da RAID 0 maila akatsekiko tolerantziari dagokionez?

a) Erabilgarritasun handia du ispilu-antzekoaren erabileraren bidez.
b) Hamming kodeak erabiltzen ditu erroreak denbora errealean zuzentzeko.
c) Maila honek ez du akatsekiko tolerantziarik eskaintzen.
d) Paritatea biltegiratzeko soilik erabiltzen den disko dedikatu bat behar du.

127. Zein RAID maila nabarmentzen da gaur egun enpresa-aplikazioetarako "errendimendu-kostu erlazio" onena eskaintzeagatik?

a) RAID 0+1 / RAID 10
b) RAID 6 (Sarbide independentea paritate bikoitzarekin.)
c) RAID 2 (Sarbide sinkronoa errore-kodearekin.)
d) RAID 5

128. Zein ekintza egin behar da sisteman berehala langile batek erakundea uzten duenean?

a) Erabiltzailearen azken sarbide-saioen auditoretza.
b) Erabiltzailearen fitxategi pertsonalak desmagnetizatutako euskarri batera transferitu.
c) Erabiltzailearen kontuak berehala indargabetu edo blokeatu.
d) Bere lan-estazioko BIOSera sartzeko pasahitza aldatu.

129. Autentifikazio-faktoreen barruan, zein da "badakizuna"-ren adibide testual bat?

a) Txartel adimenduna (smartcard) edo USB token-a.
b) Ezaugarri biometrikoak, hala nola irisa edo ahotsa.
c) Eskuzko sinadura.
d) Pasahitzak (passwordak) eta PIN kodeak.



130. Nola sailkatzen da hedatuz gero erakundearentzat "kalte esanguratsuak" eragin ditzakeen informazioa?

a) Barne-erabilerarako informazioa.
b) Informazio sekretua edo erreserbatua.
c) Desklasifikatutako informazioa.
d) Informazio konfidentziala.

131. VPN konexioetan, zer propietate bermatzen dira algoritmo kriptografikoen erabileraren bidez?

a) Sarearen eskalagarritasuna, erabilgarritasuna eta erredundantzia.
b) Datuen konfidentzialtasuna, autentikotasuna eta integritatea.
c) Banda-zabalera handiagoa eta latentzia txikiagoa urruneko konexioetan.
d) Bideratzaileak ez diren protokoloak tunelen bidez kapsulatzea.

132. Nola deitzen zaio kalteberatasun bat publiko egiten denetik dagokion eguneraketa edo segurtasun-adabakia aurkezten den arte igarotzen den denbora-tarteari?

a) Arrisku egunak.
b) Esposizio-aldia.
c) Kalteberatasun-leihoa.
d) Erantzun teknikoaren denbora.

133. Zein enpresa-espioitza teknika da baztertuak izan diren paperezko kopietan informazio sentikorra bilatzea?

a) Trash scanning.
b) Paper tracking.
c) Dumpster diving.
d) Scraping físikoa.

134. Espainiako Telekomunikazioen Lege Orokorraren arabera (32/2003), zein betebehar ezar diezaioke Estatuak erakunde publikoei edo fabrikatzaileei zifratzearekin lotuta?

a) Gako pribatu guztien segurtasun-kopiak entregatzea.
b) Zifratze-fluxuko algoritmoak soilik erabiltzea.
c) 128 bitetik gorako gako-luzerak erabiltzea debekatzea.
d) Zifratze-aparatuak doan ematea, haien kontrolerako.



135. Sistema baten bizi-zikloko zein fasetan izaten da ohikoagoa "atzeko ateak" behin behinean sartzea?

a) Garapen-faseetan.
b) Ziurtapen-auditorian.
c) Ekoizpeneko hedatze-fasean.
d) Mantentze-lan zuzentzailean.

136. Nola deitzen zaio Bluetooth teknologiaren bidez telefono mugikorrean eta agenda elektronikoan urrunetik sartzeko eta horiek kontrolatzeko fenomenoari?

a) Bluejacking masiboa.
b) Snarfing edo Bluesnarfing.
c) Bluetooth capturing.
d) Remote cell control.

137. Zein estandar definitzen da honela: eskuliburua, hainbat atalekin osatua, non segurtasun-auditoria tekniko bat egiteko askotariko probak barne hartzen dituzten moduluak jasotzen diren?

a) OSSTMM
b) Owasp
c) NIST SP 800-42
d) EISPP

138. Zein da Nessus tresnak erabiltzen duen lengoaia propietarioaren izena, erabiltzaileak bere kalteberatasun-probak definitu ahal izan ditzan?

a) Nessus Scripting Tool (NST)
b) NASL (Nessus Attack Scripting Language)
c) Vulnerability Definition Language (VDL)
d) Nessus Core Script

139. Zer motatako datu pertsonalen tratamenduari aplikatuko zaio pertsona fisikoen babesari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamendua?

a) Datu pertsonalen tratamendu erabat edo partzialki automatizatuari, baita fitxategi batean jasotako edo jasotzeko xedea duten datu pertsonalen tratamendu ez-automatizatuari ere.
b) Batasuneko Zuzenbidearen aplikazio-eremutik kanpo gelditzen den jarduera baten esparruan egindako tratamenduari.
c) Agintari eskudunek arau-hauste penalak prebenitzeko, ikertzeko, detektatzeko edo epaitzeko, edo zehapen penalak betearazteko egiten duten tratamenduari, baita segurtasun publikoaren aurkako mehatxuetatik babesteko eta mehatxu horiek prebenitzeko egiten dutenari ere.
d) Pertsona fisiko batek jarduera esklusiboki pertsonalak edo etxekoak burutzean egiten duen tratamenduari.



140. Zer eskatzen du «integritate eta konfidentzialtasun» printzipioak datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren arabera?

a) Datuak zehatzak izatea eta, beharrezkoa bada, eguneratuak; horretarako, neurri arrazoizko guztiak hartuko dira tratatzen diren helburuetarako zehatzak ez diren datu pertsonalak atzerapenik gabe ezabatu edo zuzentzeko.
b) Datuak segurtasun egokia bermatzeko moduan tratatzea, baimenik gabeko edo legez kontrako tratamenduen aurka babestea eta datuok ustekabean galdu, suntsitu edo kaltetzearen aurka babestea barne, neurri tekniko edo antolakuntzako egokiak erabiliz.
c) Datuak interesdunak identifikatzeko moduan mantentzea epe mugagabe batean, datu pertsonalen tratamenduaren beharrari erreparatu gabe, eta Erregelamendu honek ezartzen dituen neurri tekniko eta antolakuntzakoak aintzat hartu gabe.
d) Datuak helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekin biltzea, eta geroago helburu horiekin bateraezina den moduan ez tratatzea, salbu eta interes publikoko artxibatze-helburuetarako edo ikerketa zientifiko zein historikorako tratatzen badira.

141. 2016/679 (EB) Erregelamenduaren arabera, zer baldintza bete behar da haur baten datuen tratamendua zilegi izan dadin, informazioaren gizarteko zerbitzuak zuzenean eskaintzeari dagokionez?

a) Haurrak 14 urte izatea gutxienez, eta Estatu kideek ezingo dute lege bidez adin txikiagorik ezarri helburu horietarako.
b) Zerbitzua doakoa izatea eta profil komertzialik ez egitea.
c) Haurrak pribatutasun-baldintzak modu autonomoan irakurtzea eta onartzea, betiere gutxienez 14 urte baditu.
d) Haurrak gutxienez 16 urte izatea, edo hori baino gazteagoa bada, adostasuna guraso-ahalaren edo tutoretzaren titularrak ematea edo baimentzea.

142. Zer informazio eman behar du tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak interesdunarengandik zuzenean lortzen dituen unean, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren arabera?

a) Datu pertsonalen jatorria eta datu horiek sarbide publikoko iturrietatik datozen ala ez.
b) Datu pertsonalak zein helburutarako tratatuko diren eta tratamenduaren oinarri juridikoa.
c) Dagokien datu pertsonalen kategoriak eta interesdunaren aurreko tratamenduen historiala.
d) Datu-tratamenduko sistemen erresilientzia bermatzeko hartutako segurtasun-neurri tekniko eta antolakuntzakoen deskribapen orokorra.



143. Besteak beste zer informazio espezifiko lortzeko eskubidea du interesdunak tratamenduaren arduradunaren eskutik, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren babespean sarbide-eskubidea erabiltzen duenean?

a) Datu pertsonalak zein hartzaileri edo hartzaile-kategoriari jakinarazi zaizkien edo jakinaraziko zaizkien, bereziki hirugarren edo nazioarteko erakundeetako hartzaileei dagokienez.
b) Datu pertsonalak interesdunarengandik lortu ez direnean, hartzailearen ordezkariaren datu pertsonalak.
c) Datu pertsonalak ostatatuta dauden zerbitzarien kokapen fisikoaren identifikazio xehatua eta datuak prozesatzeko zentroaren helbidea.
d) Datu pertsonalen erresilientzia bermatzeko aplikatutako segurtasun-estandarraren deskribapen teknikoa eta zifratze-algoritmo espezifikoa.

144. 2016/679 (EB) Erregelamenduaren esparruan, zer kasutan EZ da aplikatuko ezabatzeko eskubidea («ahaztua izateko eskubidea»), datuen tratamendua beharrezkoa izateagatik?

a) Datu pertsonalen tratamendua legez kontra egin bada.
b) Tratamendua erreklamazioak formulatzeko, gauzatzeko edo defendatzeko beharrezkoa denean.
c) Datu pertsonalak ezabatu behar badira, tratamenduaren arduradunari aplikagarri zaion Batasuneko edo Estatu kideetako zuzenbidean ezarritako lege-betebehar bat betetzeko.
d) Datu pertsonalak jadanik ez badira beharrezkoak, bildu zirenean edo beste modu batez tratatu zirenean zehaztutako helburuei dagokienez.

145. 2016/679 (EB) Erregelamenduaren testuaren arabera, interesdunak bere datu pertsonalak zer formatutan jasotzeko eskubidea du eramangarritasun-eskubidea erabiltzean?

a) Arduradunak egokitzat jotzen duen edozein formatutan, betiere interesdunak irakurtzeko modukoa bada.
b) Paperezko formatu ziurtatu eta konpultsatuan soilik, haien egiazkotasuna bermatzeko.
c) Erabilera orokorreko eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean
d) Kontrol-agintaritzek soilik ireki dezaketen formatu enkriptatu batean.

146. 2016/679 (EB) Erregelamenduaren arabera, zein da datu pertsonalen segurtasun-urraketa bat kontrol-agintaritza eskudunari jakinaraztean jaso beharreko gutxieneko edukia?

a) Ukitutako interesdun bakoitzaren izen-abizenak eta nortasun-agiria, baita kaltetutako zerbitzarien kokapen fisiko zehatza ere.
b) Urraketaren nolakotasuna, datuak babesteko ordezkariaren harremanetarako datuak, balizko ondorioak eta arduradunak urraketa konpontzeko hartutako edo proposatutako neurriak.
c) Tratamendu-jardueren erregistroaren kopia osoa eta gertakarian huts egin duten zifratze-algoritmoen deskribapen tekniko zehatza.



d) Datuak Babesteko Europako Batzordeak arau-haustearen larritasunari buruz emandako irizpen loteslea eta dagokion administrazio-zehapenaren proposamena.

147. 2016/679 (EB) Erregelamenduaren esparruan, zer egoeratan EZ da datu pertsonalen segurtasun-urraketa interesdunari jakinarazi beharko, nahiz eta, litekeenaren arabera, urraketa horrek arrisku handia ekarri haren eskubide eta askatasunentzat?

a) Tratamenduaren arduradunak babes-neurri tekniko eta antolakuntzako egokiak aplikatu dituela erakusten duenean, bereziki datu pertsonal horiek eskuratzeko baimenik ez dutenentzat ulergaitz egiten dituztenak, zifratzea esaterako.
b) Tratamenduaren arduradunak kontrol-agintaritza eskudunari nahitaezko jakinarazpena egiten dionean, gehienez ere 72 orduko epean.
c) Urraketak gertakariaren aurretik seudonimizazio-tratamendu baten xede izan diren datu pertsonalei bakarrik eragiten dienean.
d) Ukitutako datu pertsonalen tratamendua legezko betebehar baten edo interes publikoko misio baten babespean dagoenean.

148. 2016/679 (EB) Erregelamenduaren arabera, ondorengo funtzio hauetatik zein bete behar du datuak babesteko ordezkariak bere gutxieneko eginkizunen barruan?

a) Tratamenduaren arduradunaren ordezkaritza legala eta erantzukizun juridikoa bere gain hartzea, interesdunek jarritako edozein erreklamazio judizialen aurrean.
b) Datuen babesaren gaineko inpaktu-ebaluazioaren inguruan eskatzen den aholkularitza eskaintzea, eta haren aplikazioa gainbegiratzea.
c) Datuen babesaren gaineko inpaktu-ebaluazioa modu autonomoan egitea, tratamenduaren arduradunaren ordez.
d) Aplikazioak teknikoki baliozkotzea eta arduradunaren datu-baseei aplikatutako zifratze-estandar espezifikoa auditatzea.

149. Datu pertsonalei egindako tratamenduak 2016/679 (EB) Erregelamendua urratzen duela uste duen interesdunak kontrol-agintaritza baten aurrean erreklamazioa aurkeztu nahi izanez gero, zein tokitan aurkezteko eskubidea du?

a) Tratamenduaren arduradunak bere administrazio zentrala edo establezimendu nagusia duen Estatu kidean bakarrik.
b) Ohiko bizilekua edo lantokia dagoen Estatu kidean, edota ustezko arau-haustea gertatu den horretan.
c) Batasunean ezarrita ez dagoen tratamenduaren arduradunaren ordezkaria izendatu den Estatu kidean soilik.
d) Gatazkaren xede diren datu pertsonalak ostatatzen dituen zerbitzari fisikoa kokatuta dagoen Estatu kideko kontrol-agintaritzaren aurrean.



150. 2016/679 (EB) Erregelamenduaren arabera, norengandik du kalte-ordaina jasotzeko eskubidea Erregelamendu hori urratzearen ondorioz kalte-galera materialak edo immaterialak jasan dituen edozein pertsona orok?

a) Datuak babesteko ordezkariarengandik.
b) Datuak Babesteko Espainiako Bulegoarengandik.
c) Tratamenduaren arduradun edo enkargatuarengandik.
d) Datuak Babesteko Europako Batzordearengandik.

151. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, hilda dauden pertsonen datu pertsonalei buruzko eskubideak egikaritzeari dagokionez, zein arau nagusitzen da kausatzaileak haren informazioa atzitzeko berariazko debekua utzi badu?

a) Debeku hori erabatekoa eta loteslea da legitimatutako pertsona guztientzat, jaraunsleak barne; izan ere, datuak babesteko oinarrizko eskubideak exijitzen duenaren arabera, norberaren informazioaren gaineko kontrol-borondatea oso-osorik errespetatu behar da, baita hil ondoren ere.
b) Debeku horrek atzitzea, zuzentzea edo ezabatzea eragozten du orokorrean, baina ezin dio eragin jaraunsleek kausatzailearen ondare-datuak atzitzeko duten eskubideari.
c) Atzitzeko eta ezabatzeko eskubideak egikaritzeko aukera soilik indargabetuko da baldin eta debekua Legeak aurreikusitako manu eta jarraibideen erregistroan inskribatu bada; beraz, agiri publikoan jaso gabeko beste edozein borondate-adierazpen eragingabea izango da.
d) Desgaitasuna duten pertsonak hiltzen badira, kausatzailearen berariazko debekua Ministerio Fiskalak ofizioz baliogabetu ahal izango du beti, baldin eta datuak atzitzeak jaraunsleen interes gorenari mesede egiten diola baderitzo.

152. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, nork du hamalau urtetik beherako adingabe baten izenean sarbide, zuzenketa, ezerezte edo aurka egiteko eskubideak egikaritzeko lege-ahala?

a) Guraso-ahalaren titularrek, zeinak eskubide horiek adingabearen izenean eta haien ordez egikaritu ahalko baitituzte; bai eta datuak babesteko araudiaren testuinguruan egokitu ahal zaion beste edozein pertsonak ere.
b) Ministerio Fiskalak, esklusiboki eta ofizioz, neutraltasuna eta adingabearen interes gorena babesten dela bermatzeko, haren ordezkari legalek datuak merkataritza-erabilerarako baliatzearen aurka.
c) Adingabeak berak, modu autonomoan, baldin eta tratamenduaren arduradunak heldutasuna egiaztatzeko mekanismoak ezartzen baditu, ukituak bere informazioaren tratamenduak dituen ondorioak ulertzen dituela frogatzeko.
d) Datuak tratatzen diren ikastetxeko edo entitateko Datuak Babesteko Ordezkariak bakarrik, tutore edo tutore digital gisa jardunez, adingabearen eta gurasoen arteko interes-gatazkak ekiditeko.



153. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, eta bideozaintza helburu duten tratamenduei dagokienez, nork egin ahalko du irudien tratamendua kamera edo bideokamera sistemen bidez, pertsonen eta ondasunen segurtasuna zaintzeko, bai eta haien instalazioena ere?

a) Bai pertsona fisiko edo juridikoek, zein publiko edo pribatuek ere.
b) Soilik pertsona fisiko edo juridikoek.
c) Soilik pertsona publiko edo pribatuek.
d) Informazio-sistema orokorrak edo sektorialak sortzen dituzten elkarte eta organismoek bakarrik.

154. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, datuak blokeatzeari dagokionez, ondoko baieztapenetatik zein da baliozkoa?

a) Blokeatzea hautazko neurri bat da, tratamenduaren arduradunari informazioa estatistika-helburuetarako edo barne-ikerketarako erabiltzen jarraitzea ahalbidetzen diona, betiere datuak zerbitzari nagusitik independentea den beste zerbitzari batean mantentzen badira.
b) Blokeatutako datuak euskarri logiko guztietatik berehala eta modu itzulezinean ezabatu behar dira fisikoki, eta arduradunak suntsitze-ziurtagiri bat eman beharko du Datuak Babesteko Espainiako Agentziari nahitaez bidaltzeko.
c) Datuak blokeatzea datuak identifikatzea eta erreserbatzea da, haiek tratatu eta bistaratu daitezen eragozteko, salbu eta datuak epaile eta auzitegien, Ministerio Fiskalaren edo administrazio publiko eskudunen esku jarri behar direnean, tratamenduaren ondorioz egon daitezkeen erantzukizunak eskatzeko eta erantzukizun horiek preskribitzen direnera arte.
d) Blokeatzeak esan nahi du datuetarako sarbidea urtebeteko epe finko batean eta aldi baterako etengo dela; epe hori igarotakoan ukituak ezerezteko eskaera ez badu berretsi, datuak aktibo egongo dira berriz ere jatorrizko tratamendurako.

155. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera, Datuak Babesteko Espainiako Agentzia zein ministerio-departamenturen bidez jartzen da harremanetan Gobernuarekin?

a) Barne Ministerioa.
b) Presidentetza Ministerioa.
c) Justizia Ministerioa.
d) Ekonomia eta Enpresa Ministerioa.



156. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, datuak babesteko agintaritza autonomikoek zer tratamendu motaren gainean egikaritu ahalko dituzte beren eginkizunak eta ahalak?

a) Enpresa pribatuek egindako datu pertsonalen edozein tratamenduren gainean, baldin eta haien egoitza soziala edo jarduera nagusia dagokion autonomia-erkidegoaren lurraldean garatzen bada.
b) Autonomia-erkidegoaren eremu geografikoaren barruan pertsona fisikoek jarduera esklusiboki pertsonalak edo etxekoak betez egiten dituzten datu-tratamenduen gainean.
c) Pertsona fisiko edo juridikoek kasuan kasuko administrazio autonomikoari edo toki-administrazioari dagokion eskumeneko alorretako eginkizun publikoak egikaritzeko egiten dituzten tratamenduen gainean.
d) Gobernu autonomikoaren kontsulta- eta aholku-organo gisa soilik, (EB) 2016/679 Erregelamenduan aurreikusitako zirkularrak emateko edo ikuskapen- eta zehapen-eginkizunak egikaritzeko ahalik izan gabe.

157. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak (AEPD) zer kasutan ez ditu nahitaez onartuko herritar batek aurkeztutako erreklamazioak izapidetzea?

a) Erreklamatzailea pertsona juridiko bat denean bakarrik, datuak babesteko oinarrizko eskubideak pertsona fisikoak bakarrik babesten dituelako, eta ez erakunde edo enpresak.
b) Erreklamazioa aurrez aurre eta paperean aurkezten denean eta interesduna Administrazio Publikoekin elektronikoki harremanak izatera behartutako subjektua denean, 39/2015 Legearen arabera.
c) Kexaren xedea 3.000 eurotik beherako zehapen ekonomikoa aurreikusten zaion arau-haustea denean; kasu horretan, prozedura hasteko interes publiko garrantzitsurik ez dagoela iritziko da.
d) Aurkeztutako erreklamazioak datu pertsonalak babesteari buruzkoak ez direnean, nabarmen funtsik gabeak direnean, abusuzkoak direnean edo arau-hausteen arrazoizko zantzurik ez dakartenean.

158. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, ondoko jokabideetatik zein tipifikatzen da arau-hauste oso larri gisa?

a) Kanon bat ordainaraztea ukituen eskubideak egikaritzeko eskabideei erantzuteko, egikaritzea errepikakorra denean, baldin eta jasotako diru-zenbatekoak informazioa eskuratzeko kostuen zenbatekoa gainditzen badu.
b) Arduradunak, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 32.1 artikuluak agindutakoari jarraikiz, ezarritako neurri tekniko eta antolakuntzakoak urratzea, behar den ardura faltagatik.
c) Lege organiko honen 27. artikuluan baimendutako kasuetatik kanpo dauden arau-hauste eta zehapen administratiboekin loturiko datu pertsonalen tratamenduak.
d) Tratamendu-jardueren erregistroa ez jartzea datu-babeseko agintaritzaren esku, tratamendua ikerketa baten esparruaren barruan eskatzen denean.



159. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, zenbat denboraz egon behar du geldi zehapen-espedienteak ustezko arau-hausleari egotzi ezin zaion arrazoi baten ondorioz, arau-haustearen preskripzio-epea berriro neurtzen hasteko?

a) Hilabete bat baino gehiagoz.
b) 12 hilabete baino gehiagoz.
c) 3 hilabete baino gehiagoz.
d) 6 hilabetetik gora.

160. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, ondoko baieztapenetatik zein EZ dator bat Interneterako sarbide unibertsala izateko eskubidea bermatzeko xedatutakoarekin?

a) Gizon-emakumeentzako Interneterako sarbideak genero-arrakala gainditzea bilatuko du, bai eremu pertsonalean, bai lan-eremuan.
b) Herritar guztientzako sarbide unibertsala, eskuragarria, kalitatezkoa eta ez-diskriminatzailea bermatuko da.
c) Belaunaldi-arrakala gainditzea bilatuko du eta, horretarako, adinekoen prestakuntza eta sarbidea izateko ekintzak eskainiko dira.
d) Sarbide unibertsala izateko eskubideak zera dakar, sareko hornitzaileek banda zabaleko konexioa doan hornitzeko betebeharra dutela dentsitate demografiko txikiko landa-inguruneetan bizi diren herritar guztientzat.

161. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, ondoko baieztapenetatik zein dator bat lan-eremuan deskonexio digitalerako eskubideari buruz xedatutakoarekin?

a) Deskonexio-eskubideak baimena ematen dio langileari lanaldi efektiboan tresna teknologikoen erabilera modu diskrezionalean eteteko, betiere laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiaren arabera neke informatikorako arriskua egiaztatzen bada.
b) Enplegatzaileak, langileen ordezkariei entzun eta gero, langileei zuzendutako barne-politika bat landuko du, non definituko diren, batetik, deskonexio-eskubidea egikaritzeko modalitateak, eta, bestetik, tresna teknologikoak zentzuz erabiltzeko prestakuntza eta sentsibilizaziorako ekintzak.
c) Eskubide honen nolakotasuna dela-eta, eskubidearen derrigortasuna eta enpresak deskonexio-protokoloak definitzeko duen betebeharra zerbitzuak urrutitik edo telelan bidez ematen dituzten langileei mugatzen zaizkie soilik.
d) Negoziazio kolektiboan aurreikuspen espezifikorik ezean, enpresaburuak, aldebakarreko eran, deskonexio digitalerako baldintzak ezarri ahalko ditu, eta baliozkoa izateko nahikoa izango du langileen ordezkariei informazio-jakinarazpena egitea.



162. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, Interneten adingabeak babesteari dagokionez, zer bete behar dute ikastetxeek edo adingabeekin jarduerak egiten dituzten entitateek adingabeen datu pertsonalak sare sozialetan argitaratzeko edo zabaltzeko?

a) Ikastetxeek betetzen duten interes publikoko misioa dela eta, ikastetxeek eskola-jardueren irudiak baimenik gabe zabaltzeko ahalmena dute, betiere adingabea izen-abizenekin identifikatzen ez bada.
b) Datu horiek sare sozialen edo antzeko zerbitzuen bidez argitaratzeko edo zabaltzeko, adingabearen edo haren legezko ordezkarien adostasuna beharko da, adingabeen adostasunari buruzko Legearen arau orokorretan xedatutakoaren arabera.
c) Adingabearen segurtasuna bermatzeko, araudiak zehatz-mehatz debekatzen die ikastetxeei sare sozial irekiak erabiltzea, eta datuak soilik plataforma hezigarri itxien bidez zabalduko ditu, eta plataforma horiek familiek erabili ahalko dituzte soilik.
d) Ikastetxeak informazioa argitaratzeko "adingabearen interes gorena" hartu beharko du oinarri, eta, horretarako, nahikoa izango du tutore legalei aldez aurretik informatzea, eta hamar eguneko epea emango die edukia igo aurretik berariazko aurkakotasuna adieraz dezaten.

163. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, sare sozialen zerbitzuetan eta antzeko zerbitzuetan ahaztua izateko eskubidea egikaritzeari dagokionez, ondoko baieztapenetatik zein da zuzena adingabea izan bitartean emandako datuak ezabatzeari buruz?

a) Zerbitzu-emailea datuak ezereztera behartuta dago bakarrik ukituak frogatzen badu informazioa zehaztugabea dela, ez dela egokia edo neurriz kanpokoa dela, hirugarrenek adinez nagusi direnean emandako datuei aplikagarri zaizkien haztapen-irizpideei jarraituz.
b) Adingabea izan bitarteko edukien gaineko ezerezte-eskubidea automatikoki galtzen da, baldin eta ukituak, adinez nagusi denean, zerbitzu berean argitalpen berriak egiten baditu, horrekin ulertzen baita aurretiazko historia tazituki balidatzen dela.
c) Ukituak berak edo hirugarren batek zerbitzuari adingabea zenean emandako datuei dagokienez egikaritzen denean eskubidea, zerbitzu-emaileak luzamenik gabe ezereztu beharko ditu datu horiek eskatze hutsarekin, beste zirkunstantziak gertatu beharrik gabe.
d) Sare sozialen zerbitzu-emaileak salbuetsita daude adingabeen datuak ezerezteko betebeharretik, baldin eta frogatzen badute informazio hori soilik estatistika-helburuetarako erabiltzen dela.

164. Zein da 6/2020 Legearen xedea?

a) Espainiako ordenamendu juridikoa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendura egokitzea.
b) Herritarren eskubide digitalak bermatzea, Konstituzioaren 18.4 artikuluan ezarritako aginduaren arabera.
c) Konfiantzazko zerbitzu elektronikoei buruzko zenbait alderdi arautzea.
d) Pertsona fisikoek datu pertsonalen babeserako duten oinarrizko eskubidea, Konstituzioaren 18.4 artikuluaren babespean.



165. Espainiatik kanpo ezarritako zein zerbitzu-emaileri aplikatzen zaie 6/2020 Legea?

a) Beste Estatu batean bizi diren edo egoitza duten eta Espainian jarduten duten zerbitzu-emaile guztiei, haien gainbegiratzea edozein dela ere.
b) Beste Estatu batean bizi diren edo egoitza duten eta Espainian modu iraunkorrean ezarrita dauden zerbitzu-emaileei, baldin eta haien zerbitzuak EBko beste herrialde bateko agintaritza eskudunak gainbegiratzen ez baditu.
c) Beste Estatu batean bizi diren edo egoitza duten eta Espainian modu iraunkorrean ezarrita dauden zerbitzu-emaileei, baldin eta haien zerbitzuak EBko beste herrialde bateko agintaritza eskudunak gainbegiratzen baditu.
d) Espainian ezarritako konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile publiko eta pribatuei.

166. 6/2020 Legearen arabera, zein balio eta eraginkortasun juridiko dute dokumentu elektronikoek?

a) Dokumentu elektroniko publiko, administratibo eta pribatuek beren izaerari dagokion balio eta eraginkortasun juridikoa dute, aplikatu behar zaizkien legeriaren arabera.
b) Dokumentu elektroniko publiko eta administratiboek 2016/679 (EB) Erregelamenduak Espainiako ordenamendu juridikoan ematen dien balio eta eraginkortasun juridikoa dute.
c) Dokumentu elektroniko publiko eta pribatuek kualifikatu gabeko kopiaren balioa eta eraginkortasun juridikoa dute, Erregelamenduaren 3. artikuluaren eta bigarren xedapenaren arabera.
d) Dokumentu elektroniko publiko eta pribatuek 2016/679 (EB) Erregelamenduak Espainiako ordenamendu juridikoan ematen dien balio eta eraginkortasun juridikoa dute.

167. 6/2020 Legearen arabera, zein da ziurtagiri elektroniko kualifikatu baten gehieneko indarraldia?

a) 2 urte.
b) 4 urte.
c) 5 urte.
d) 6 urte.

168. 6/2020 Legearen arabera, zer gertatzen da sinadura edo zigilua sortzeko datuen isilpekotasuna urratu edo arriskuan jartzen bada?

a) Datu horiek arriskuan jartzearen arduradunari isun bat jarriko zaiola.
b) Ziurtagiri elektronikoa beste sinatzaile batekin berrituko dela.
c) Ziurtagiri elektronikoaren titularraren nortasuna aldatuko dela.
d) Ziurtagiri elektronikoa errebokatuko dela.



169. 6/2020 Legeari jarraituz, zer informazio sartu behar du zerbitzu elektronikoen konfiantzazko emaileak titularrari egiten dion jakinarazpenean ziurtagiri elektroniko bat errebokatu edo eteten duenean?

a) Bakarrik ziurtagiria ondorerik gabe geratuko den eguna, azalpen gehigarririk gabe.
b) Ziurtagiria zein egunetan eta ordutan geratuko den ondorerik gabe, eta horretarako arrazoiak.
c) Errebokazioari errekurtsoa jartzeko prozedura eta horretarako gehieneko epea.
d) Errebokazioa edo etetea agindu duen agintaritza eskudunaren identitatea.

170. Pertsona fisikoei emandako sinadura elektronikoko ziurtagiri kualifikatuen kasuan, nola esleitzen da titularraren identitatea, 6/2020 Legean aurreikusitakoaren arabera?

a) Izen-abizenen bidez eta nortasun-agiri nazionalaren zenbakiaren, atzerritarren identifikazio-zenbakiaren edo identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez, edo modu argi eta garbian jasota dagoen izenorde baten bidez.
b) Izen-abizenen bidez, posta-helbidea eta jaiotza-data barne, eta/edo izenorde baten bidez.
c) Izendapenaren edo sozietate-izenaren bidez eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez.
d) Nortasun-agiri nazionalaren bidez, atzerritarren identifikazio-zenbakiaren edo identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez, edo sozietate-izendapenaren edo izenaren eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez.

171. 6/2020 Legearen arabera, ziurtagiri kualifikatu baten eskatzaile baten identitatea egiaztatzeko ardura duten pertsonen aurrean, zein kasutan bazter daiteke fisikoki pertsonatzea?

a) Eskatzaileak nortasun-agiri nazionalaren kopia konpultsatua eta erantzukizunpeko adierazpena aurkezten dituenean.
b) Eskatzaileak ziurtagiri kualifikatua igortzeko eskabidean egindako sinadura notario batek legitimatzen duenean.
c) Eskatzaileak lehendik emaileak berak emandako indarreko beste ziurtagiri kualifikatu bat lortzen duenean.
d) Ordezkari legal bat bere izenean bertaratzen denean, sail eskudunak konpultsatutako ziurtagiri kualifikatuarekin.

172. 6/2020 Legearen arabera, erabil al daiteke bideokonferentzia identifikazio-metodo gisa ziurtagiri kualifikatu bat eskatzeko eta, hala bada, zein baldintzarekin?

a) Ez, bideokonferentzia ez dago inoiz baimenduta, urrutiko identifikazioak ez baitu bermatzen ziurtagiri kualifikatuetarako eskatzen den fidagarritasuna.
b) Bai, baina bakar-bakarrik eskatzailea atzerrian bizi denean, Espainiara etortzerik ez daukanean eta bizi den herrialdeko Espainiako enbaxadan egiten denean.
c) Ez, soilik fisikoki pertsonatzea edo sinadura notarioak legitimatzea onartzen dira, urrutiko identifikazio-metodorik erabili ahal izan gabe.



d) Bai, baldin eta, fidagarritasunari dagokionez, presentzia fisikoaren pareko segurtasuna ematen badu, adostasuna ebaluatzeko erakunde baten ebaluazioaren arabera, eta ministerio-agindu batek ezarritako baldintza teknikoak oinarri hartuta.

173. 6/2020 Legeari jarraituz, zer betebehar dute konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaileek ziurtagiri elektroniko batean izenorde bat jartzen dutenean?

a) Erabilitako izenordea agintaritza eskudunari jakinaraztea, erregistratzeko eta aldez aurretik balidatzeko.
b) Izenordea emaileak berak emandako beste edozein ziurtagiriren izenordearekin ez datorrela bat bermatzea.
c) Ziurtagiriaren titularraren benetako identitatea egiaztatzea eta hura egiaztatzen duen dokumentazioa gordetzea.
d) Ezin da izenorderik erabili ziurtagiri elektroniko mota hauetan.

174. 6/2020 Legean aurreikusitakoaren arabera, zein da konfiantzazko zerbitzu elektronikoen emaile kualifikatuek egin behar duten erantzukizun zibileko aseguruaren gutxieneko zenbatekoa?

a) 1.000.000 euro, eta 250.000 euro gehituko dira ematen den zerbitzu kualifikatu gehigarri bakoitzeko.
b) 1.500.000 euro, sektore publikoko zerbitzu-emaileentzat izan ezik, eta 500.000 euro gehituko dira zerbitzu kualifikatu gehigarri mota bakoitzeko.
c) 1.500.000 euro edozein emailerentzat, eta 500.000 euro murriztu daitezke sektore pribatuan zerbitzu kualifikatu bakarra ematen bada.
d) 2.000.000 euroko oinarrizko zenbatekoa, ematen diren zerbitzu kualifikatuen kopurua edozein dela ere.

175. 6/2020 Legearen arabera, zer arau-hauste mota egiten du zerbitzu-emaile batek bere produktu, sare eta informazio-sistemetan segurtasun-gorabeherak konpontzeko neurri nahikoak hartzen ez dituenean?

a) Arau-hauste oso larria, gertatu eta bost eguneko epean konpontzen ez bada.
b) Arau-hauste larria, gertatu eta hogei eguneko epean konpontzen ez bada.
c) Arau-hauste larria, gertatu eta hamar eguneko epean konpontzen ez bada.
d) Arau-hauste arina, gertatu eta hamar eguneko epean konpontzen ez bada.

176. ITIL4 teknologiaren aldaketen kudeaketan, aldaketa batek honako hauek barne hartzen ditu: Informazio-sistema osatzen duten konfigurazio-elementu baten edo gehiagoren aldaketa...

a) edo informazio-sistema honek emandako zerbitzu batena edo gehiagorena.
b) baina ez informazio-sistema honek emandako zerbitzuena.
c) baldin eta negozio-prozesu batean eragina badu.
d) edo datu baten aldaketa.



177. ITIL 4 metodologian, aldaketa mota estandarrak:

a) Ebaluazio osoa eta baimena eskatzen ditu aldaketa burutu aurretik.
b) Aldez aurretik baimendutako aldaketei dagokie, eta aurrez zehaztutako prozedurei jarraituko zaie.
c) Aurreikusitakoa baino erreakzio azkarragoa eskatzen du, enpresa-jardueraren gaineko eragina mugatzeko.
d) Aldez aurretik baimendutako aldaketei dagokie, eta ebaluazio osoa egin beharko da.

178. ITIL 4 metodologian, aldaketen kudeatzailea(k)... Zein EZ da baieztapen zuzena?

a) ...aldaketen kudeaketaren praktikako aktore nagusia da.
b) ...CABeko idazkari gisa jarduten du.
c) ...hobe da enpresan ezezaguna den pertsona bat izatea.
d) ...aldaketa bati EZ esateko aukera izan behar du.

179. ITIL 4 metodologiaren aldaketen kudeaketan, hauek dira CABeko (Change Advisory Board) kide iraunkorrak:

a) Aldaketen kudeatzaile bat eta sail bakoitzeko ordezkari bat.
b) Aldaketa-kudeatzaile bat, dagokion zerbitzuaren jabea eta erakundeko sailen arteko ordezkari bakar bat.
c) Dagokion zerbitzuaren jabea, aditu teknikoak eta azpikontratistak.
d) Aldaketa-kudeatzaile bat, dagokion zerbitzuaren jabea eta merkaturatze-kudeaketa praktikaren ordezkari bat.

180. ITIL 4 metodologian, gertakariak kudeatzeko praktikaren helburuak dira:

a) Zerbitzua berrezartzea.
b) Zerbitzua berrezartzea, inpaktua minimizatzea eta kausa aurkitzea.
c) Zerbitzua berrezartzea eta inpaktua minimizatzea.
d) Zerbitzua berrezartzea eta kausa aurkitzea.

181. ITIL 4 metodologian, gertakari bat kodetzeko lehentasuna zehaztu beharko da. Horretarako, honako hauek identifikatu beharko ditugu:

a) Urgentzia eta larritasuna.
b) Inpaktua eta urgentzia.
c) Larritasuna eta inpaktua.
d) Gertakari bat kodetzeko EZ da beharrezkoa lehentasuna zehaztea.

182. ITIL 4 metodologiako zerbitzu baten egoera normalaren (edo estandarraren) eta degradatuaren arteko aldeak hauek dira:

a) Normalak asmatu zen bezala funtzionatzen du, eta degradatuak ez.
b) Normalak zerbitzu-akordioaren (SLA) arabera funtzionatzen du, eta degradatuak ez.
c) Normalak asmatu zen bezala funtzionatzen du, eta degradatuak kalitate-maila txikiagoarekin funtzionatzen du.



d) Normalak zerbitzu-akordioaren (SLA) arabera funtzionatzen du, eta degradatuak, berriz, kalitate-maila txikiagoarekin.

183. ITIL 4 metodologiako praktika onenetan, bi eskalatze mota identifikatu dira:

a) Eskalatze funtzionala eta eskalatze bertikala.
b) Eskalatze bertikala eta eskalatze organikoa.
c) Eskalatze organikoa eta eskalatze hierarkikoa
d) Eskalatze funtzionala eta eskalatze hierarkikoa.

184. ITIL 4 metodologian, aldaketak kudeatzeko praktikaren zereginen artean hauek aurkitzen ditugu:

a) Aldaketak prozesatzeko erabiltzen diren prozedurak eta metodoak eraginkorrak direla ziurtatzea.
b) Aldaketa batean konfigurazio-elementuetan egindako aldaketak dagokion datu-basean erregistratzen direla ziurtatzea.
c) Egungo eta etorkizuneko aldaketa guztietan lan-plan oso bat mantentzea.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

185. ITIL 4 metodologian:

a) Gertakariak kudeatzeko praktikak gertakaria jazo ondoren aztertzen ditu egoeren kausak.
b) Gertakariak kudeatzeko praktikak denbora errealean kudeatzen ditu egoerak.
c) Arazoak kudeatzeko praktikak denbora errealean kudeatzen ditu egoerak.
d) Aurrekoetako BAT ERE EZ da zuzena.

186. Zeregin hauetatik zein EZ dagokio arazoak kudeatzeko praktikari ITIL 4 metodologian:

a) Arazo bihur daitezkeen gertakarietako egoerak aztertzea.
b) Dagoeneko arazo gisa erregistratuta dauden egoerak detektatzea.
c) Ezagunak diren erroreak baztertzea.
d) Arazo bihurtu diren gertakari larriak kudeatzea.

187. ITIL 4 metodologian, erabiltzaileek beren eskaerak informatikara bidali eta izapidetzeko kanal pribilegiatu bat eskaintzea:

a) Gertakariak kudeatzeko praktikaren helburua da.
b) Gertakariek gora egin izana kudeatzearen helburua da.
c) Rol-banaketaren helburua da.
d) Zerbitzu-eskaerak kudeatzeko praktikaren helburua da.



188. ITIL 4 metodologian, zerbitzu-eskaerak kudeatzeko praktikaren helburuetako bat hau da:

a) Erabiltzaileen kexak Informatika Zuzendaritzara igotzeko kanal bat eskaintzea.
b) Zerbitzua hitzartutako epean berrezartzea.
c) Gertakariaren inpaktua minimizatzea.
d) Etengabeko hobekuntzarako aurrekontua esleitu eta bermatzea.

189. Zein da Segurtasunaren Eskema Nazionalaren (ENS) helburu nagusia?

a) Datu pertsonalen babesa sektore publikoan esklusiboki arautzea.
b) Tratatutako informazioa eta emandako zerbitzuen babes egokia bermatzeko oinarrizko printzipioak eta gutxieneko baldintzak ezartzea.
c) Administrazio digitalaren arloko Administrazio Prozedura Erkidearen Legea ordezkatzea.
d) Europako administrazioen arteko elkarreragingarritasun-estandar teknikoak definitzea.

190. Sektore pribatuko zein entitateri aplika dakioke Segurtasunaren Eskema Nazionalaren (ENS) betekizuna?

a) Espainiako lurraldean jarduten duten entitate teknologiko guztiei.
b) DBEOren arabera goi-mailako datuak tratatzen dituzten entitateei bakarrik.
c) Beren eskumenak eta administrazio-ahalak gauzatzeko sektore publikoko erakundeei zerbitzuak ematen dizkietenei.
d) Sektore pribatuko EZEIN entitateri ERE EZ zaio aplikatzen, ENS Administrazio Publikora bakarrik lotzen baita.

191. Adierazi hauetako zein EZ den Segurtasunaren Eskema Nazionalaren oinarrizko printzipio bat:

a) Segurtasun integrala.
b) Arriskuetan oinarritutako segurtasunaren kudeaketa.
c) Auditoretza-zerbitzuak nahitaez kanporatzea.
d) Etengabeko zaintza eta aldizkako birrebaluazioa.

192. Zein dira Segurtasunaren Eskema Nazionalaren segurtasun-politika onartzeko tresnak barnean hartu behar dituen eduki minimoak?

a) Segurtasun-rolak edo -funtzioak, eta haien betebeharren eta erantzukizunen definizioa.
b) Erakundearen hardware-aktibo guztien inbentario osoa.
c) Zibersegurtasunerako urteko aurrekontu xehatua.
d) Erakundearen datuetara sarbidea duten erabiltzaile guztien zerrenda izenduna.



193. Segurtasunaren Eskema Nazionalean, zer dakar "Gutxieneko pribilegio"aren eskakizun minimoak?

a) Jarduera lantzeko, administratzeko eta erregistratzeko funtzioak lehenetsita daudenak izatea, ordutegi-murrizketarik eta baimendutako sarbide-punturik gabe.
b) Sistemaren administratzaile-kopurua sail bakoitzeko bakar batera murriztea.
c) Sistemaren konfigurazioan zuzendaritza-maila duten langileak bakarrik sartzea.
d) Sistemek erakundearen helburuak lortzeko ezinbestekoa den funtzionaltasuna ematea.

194. Segurtasunaren Eskema Nazionalean ezarritako gutxieneko baldintzak betetzeko, dagokion aplikazio-eremuko erakundeek dagozkion segurtasun-neurriak eta -errefortzuak hartuko dituzte. Zein dokumentutan formalizatu behar da sistema baterako hautatutako segurtasun-neurrien zerrenda?

a) Segurtasunaren Estatuko Txosten Nazionalean (INES).
b) Informazio-sistemaren erabiltzailearen eskuliburuan.
c) Kontratuaren preskripzio teknikoen agirian.
d) Aplikagarritasun-adierazpenean.

195. Segurtasunaren Eskema Nazionalean, zer maiztasun minimorekin egin behar da segurtasunaren ohiko auditoria erregular bat?

a) Gutxienez bi urtean behin.
b) Urtero.
c) Lau urtean behin, karguak berritzearekin batera.
d) Segurtasun-gertakari larri bat detektatzen denean bakarrik.

196. Informazio-sistema eskudunek prozesu bat beteko dute Segurtasunaren Eskema Nazionalarekin bat datozen zehazteko. Arlo horretan, zer behar du oinarrizko kategoriako sistema batek?

a) Zentro Kriptologiko Nazionalak zuzenean emandako aldeko txostena.
b) Adostasuna adierazteko autoebaluazio bat baino ez.
c) Egiaztatutako erakunde baten nahitaezko ziurtapen-auditoria.
d) EZ DA BEHAR adostasuna zehazteko prozedurarik.

197. Segurtasunaren Eskema Nazionalean, nor da "betetze-profil espezifikoak" baliozkotu eta argitaratzeko organo eskuduna?

a) Datuak Babesteko Espainiako Bulegoa (AEPD).
b) Kriptologia Zentro Nazionala (CCN).
c) Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioa.
d) Digitalizazioko eta Adimen Artifizialeko Estatu Idazkaritza.



198. Segurtasunaren Eskema Nazionalean, informazioaren segurtasunari eragingo liokeen gertakari batek erakundean izango lukeen eragina zehazteko, segurtasunaren zer dimentsio hartuko dira kontuan?

a) Konfidentzialtasuna eta eskuragarritasuna soilik.
b) Berrezarpen-kostua, berreskuratze-denbora, kaltetutako hardwarea eta kaltetutako softwarea.
c) Eskuragarritasuna, benetakotasuna, integritatea, konfidentzialtasuna eta trazabilitatea.
d) Berrezarpen-kostua eta berreskuratze-denbora bakarrik.

199. Segurtasunaren Eskema Nazionalaren arabera, zein taldetan egituratzen dira segurtasun-neurriak?

a) Antolaketa-esparrua, eragiketa-esparrua eta babes-neurriak.
b) Fisikoak, Logikoak eta Antolaketakoak.
c) Prebentzioa, detekzioa eta erantzuna.
d) Oinarrizkoak, ertainak eta altuak.

200. Segurtasunaren Eskema Nazionalaren arabera, zer ahalmen du CCN-CERTek gertakariak ebazteko euskarri eta koordinazio funtzioak betetzeko?

a) Zehapen ekonomikoa ezar diezaieke segurtasun-neurri prebentiboak aplikatu ez dituzten erakundeei.
b) Gertakaria ebatzi arte, ukitutako erakundeko teknikariak ordezteko ahalmena du.
c) Txostenak, auditoretza-erregistroak, eragindako sistemen konfigurazioak eta ikerketarako beharrezkoa den beste edozein informazio edo euskarri bil ditzake.
d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.